**2022KO EKAINAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 30 DE JUNIO DE 2022**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita hamarra. | **DIA**: Treinta |
| **HILABETEA**: Ekaina. | **MES:** Junio. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita bi | **AÑO**: Dos mil veintidós |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDOS**:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEAK / AUSENTES**:

EAJ-PNV

- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa.

Bapateko itzulpen lanetan Idoia Noble andrea ibili da Traductores e interpretes S.A.ren enpresakoa.

Las labores de traducción simultanea las ha realizado Idoia Noble de la empresa Traductores e Intérpretes S.A.

**1.- AURREKO AKTA**. 2022-05-26ko aktaren onespena.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta del 26-05-2022

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da bildutakoek berarekiko aldaketarik aurkeztu ez dutenez.

Tras dar cuenta del acta, al no proponerse modificaciones, se aprueba por unanimidad.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN**:

a.- KREDITU ALDAKETA. 12. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA.2022CRAD0012

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE 12 DE CRÉDITOS ADICIONALES.

Ezagutzera eman da Alkatearen ondorengo proposamena:

Se da a conocer la siguiente propuesta de Alcaldía:

*"Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*

*1.- 5. Kreditu gehikuntzen bidez 78.700,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:*

*GASTUEN GEHIKUNTZA*

*"Teniendo en cuenta la necesidad de realizar el gasto enumerado en la propuesta que se adjunta y la inexistencia de crédito presupuestario para su financiación, esta Alcaldía formula la siguiente Propuesta de Acuerdo a la Corporación:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de crédito financiada mediante incrementos de crédito por importe de 78.700,00 euros, según se detalla en el anexo, y que se resume por capítulos en los siguientes términos:*

*INCREMENTO DE GASTOS*

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren ordainketak | 78.700,00 |
| GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO | | 78.700,00 |

SARRERAK

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 78.700,00 |
| | FINANTZIAZIOA | 78.700,00 |

*2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.*"

*KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA*

*2.- Someter el citado acuerdo a información pública para que en el plazo de 15 días puedan formularse las alegaciones que procedan. Si no se recibieran alegaciones, se entenderá definitivamente aprobada.*

*PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES*

| Sarreren kontzeptuak | Baliabidearen kontzeptua | Sarrera handiagoak |
|---|---|---|
| 870.01 | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 78.700,00 |
| GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 78.700,00 |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu) adierazi du kreditu aldaketa adibide ona dela hau, ez usteko behar bati erantzuten dioelako.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones, el Sr. Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) señala que la modificación de crédito es un buen ejemplo porque responde a una necesidad imprevista.

Sometida a votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

b.- <u>2021. URTEKO KONTU OROKORRA. ONESPEN PROPOSAMENA</u>. 2022EKBO0086

Ezagutzera eman da, Kontuetarako Batzorde Bereziaren ondorengo proposamena:

b.- <u>CUENTA GENERAL 2021. PROPUESTA DE APROBACIÓN.</u>

Se da a conocer la siguiente propuesta de la Comisión Especial de Cuentas:

"*GAIA.- 2021eko Kontu Orokorra: 2021eko Kontuak. 2022rako finantza kontroleko plana. 2021eko Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostena.*

*AURREKARIAK*

*1.- 2022ko apirilaren 28an Antolakuntza Batzordea Kontuetarako Batzorde Berezi gisa osaturik egindako bileran, Kontuhartzaileak ondorengoaren berri eman zuen:*

*- 2021eko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontua osatu dela, ondorengo dokumentuez osatuta: Aurrekontuaren likidazioa, Egoera Balantzea, Ondarearen emaitza ekonomikoaren Kontua, Diruzaintzako gerakina eta indarrean dagoen legeriak eskatutako gainerako Eranskinak, ondorengo erakundeei dagozkienak:*

*Udala*
*Beasain Lantzen, S.A.U. likidazioan*

*2.- Aipatutako kontuei buruzko jendaurreko iragarkia 2022ko maiatzaren 9an argitaratu zen G.A.O.ean, eta 15 lanegun egon behar zuen jendaurrean.*

*Aipatutako epea igaro denez, inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe:*

*- Udalbatzaren onespenerako jartzen da Udalaren eta "Beasain Lantzen, S.A.U. sozietatearen" kontuekin osatutako 2.021 ekitaldiko Kontu Orokorra.*

*- 2022 ekitaldirako urteko finantza kontroleko planaren eta 2021 ekitaldiari dagokion Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostenaren berri ematen dio Kontuhartzaileak Udalbatzari.*"

Jarraian Alkate andreak ondorengoa datuen berri eman du:

"*UDALA*
*Hasierako aurrekontua : 16.625.601,15 €*

- *Foru Funtsaren zuhurtziazko aurreikuspena:*

"*ASUNTO.- Cuenta General 2021: Cuentas 2021. Plan de control financiero 2022. Informe resumen anual de control interno 2021.*

*ANTECEDENTES*

*1.- La Interventora municipal en la sesión celebrada por la Comisión de Antolakuntza constituida en Comisión Especial de Cuentas en fecha 28 de abril de 2.022 informó de:*

*- La confección de la Cuenta General del Presupuesto correspondiente al ejercicio 2021 integrada por la Liquidación del Presupuesto, Balance de Situación, Cuenta de resultado económico patrimonial, Remanente de Tesorería y demás Anexos exigidos por la legislación vigente correspondientes a las siguientes entidades:*

*Ayuntamiento*
*Beasain Lantzen, S.A.U. en liquidación*

*2.- El anuncio de exposición pública de las mencionadas cuentas, se publicó en el B.O.G. de fecha 9 de mayo de 2.022, debiendo estar expuesto al público durante un plazo de 15 días hábiles.*

*Habiendo transcurrido el plazo señalado, sin que se haya presentado reclamación u observación alguna:*

*- Se somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno propuesta de aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2.021 integrada por las cuentas del Ayuntamiento y la sociedad "Beasain Lantzen, S.A.U. en liquidación"*

*- Se da cuenta al Pleno del Plan de control financiero anual para el ejercicio 2022 y del Informe resumen anual de control interno relativo al ejercicio 2021 por parte de la Interventora.*

A continuación la Sra. Alcaldesa ha aportado los siguientes datos:

"*AYUNTAMIENTO*
*Presupuesto inicial 16.625.601,15 €*

- *Previsión prudencial del Fondo Foral:*
-

- *Aldundiaren aurreikuspena: 10.568.137,00*
- *Aurrekontuan aurreikusia: 8.767.549,15*
- *Aldundian likidatutakoa: 10.795.331,99*

*Kreditu aldaketak:*

*2020tik txertatuta: 3.075.859,60 €*
*Kreditu berrriak: 3.752.248,94 €*

*Behin-betiko aurrekontua: 23.453.709,69 €*
*Gastuen gauzatze maila: % 73,02*
*Sarreren gauzatze maila: % 86,95 Diruzaintzako gerakinaren erabilpena doituz, urteko sarrerak %121ean gauzatu dira.*
*Diruzaintzako gerakina (gastu orokorretarako): 17.491.476,33 €*
*Bankuetan saldoa: 18.041.208,39 €*
*Maileguen zor bizia 2021 urte amaieran: 0,00 €*
*Ondare emaitza: 3.049.580,42 €*
*2021ean egindako gastu aipagarrienak:*

- *Murumendi ikastetxean erabilera anitzeko gela: 156.097,80 €*
- *Dolarea parkea: 1.012.197,87 €*
- *Igartzako boladizoa: 406.450,79 €*
- *Saskibaloi kantxa: 262.884,17 €*

*BEASAIN LANTZEN, S.A.U. LIKIDAZIOAN*
*Udalbatzak 2021eko abenduaren 9an "Beasain Lantzenen" behin betiko desegitea eta likidatzea onartu zuen, bere ondarearen, betebeharren eta eskubideen jabe Udala izatea onartuz.*

*EGONKORTASUN LEGEAREN BETETZEA*
*Nahiz eta Arau fiskalen betebeharra etenda egon den 2021 urtean, adierazi emaitzak ondorengoak izan direla:*
*Superabita: 3.537.671,59 €*
*Finantzen Iraunkortasuna edo zor publikoa: % 2,95 (Goiekiren mailegua)*
*Gastuaren araua: Gastu konputagarriaren hazkundea % 17,79 izan da. (Etenda egon ez balitz gehiengoa %2,80 izango zen eta beraz Plan ekonomiko finantzarioa egin beharra izango genuen ondorengo urtetan mugara itzultzeko neurrira hartuz).*"

*- Previsión de la Diputación: 10.568.137,00*

*- Previsión presupuestaria: 8.767.549,15*

*- Liquidado Diputación: 10.795.331,99*

*Modificaciones de crédito:*

*Incluido desde 2020: 3.075.859,60 €*
*Créditos nuevos: 3.752.248,94 €*

*Presupuesto definitivo: 23.453.709,69 €*
*Grado de ejecución de los gastos: 73,02%*
*Grado de ejecución de los ingresos: ajustando la utilización del remanente de Tesorería el 86,95%, los ingresos anuales se han materializado en el 121%*

*Remanente de Tesorería (para gastos generales): 17.491.476,33 €*
*Saldo en bancos: 18.041.208,39 €*
*Deuda viva de préstamos a final de 2021: 0,00 €*
*Resultado patrimonial: 3.049.580,42 €*
*Gastos más destacados realizados en 2021:*
*- Aula polivalente colegio Murumendi: 156.097,80 €*

*- Parque Dolarea: 1.012.197,87 €*

*- Boladizo de Igartza: 406.450,79 €*

*- Cancha de baloncesto: 262.884,17 €*

*BEASAIN LANTZEN, S.A.U. EN LIQUIDACIÓN*
*El Ayuntamiento Pleno aprobó el 9 de diciembre de 2021 la disolución definitiva y liquidación de Beasain Lantzen, aceptando ser el Ayuntamiento el propietario de su patrimonio, obligaciones y derechos.*

*CUMPLIMIENTO DE LA LEY DE ESTABILIDAD*
*Aunque la obligación de las Normas Fiscales ha estado suspendida durante el año 2021, señalar que los resultados han sido los siguientes:*
*Superávit: 3.537.671,59 €*
*Sostenibilidad Financiera o Deuda Pública: 2,95% (Préstamo de Goieki)*
*Regla de gasto: el crecimiento del gasto computable ha sido del 17,79%. (Si no hubiera estado suspendida lel máximo habría sido del 2,80%, por lo que habríamos tenido que elaborar un Plan económico-financiero tomando medidas para volver al límite en los años siguientes)."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ustetan salagarria da kreditu aldaketetan 6.000.000 € erabili izana.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) considera denunciable la utilización de 6.000.000 € en las modificaciones de crédito.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Onartu egiten dugu. Aurrekontuaren itxiera da, baina ematen den hainbat informazio oharkabe pasatzen dira komunikabideetan. Aurrekontu likidatze horren berri herritarrei ematea interesgarria dela iruditzen zaigu kudeaketa ekonomikoaren argazkia delako. Datu esanguratsuak aipatu dira eta nik kontuhartzailearen txostenean kontratazio alorrean adierazitako hobetzeko lanen aipamena egin nahi nuke: kontratuaren epea eta amaiera daten zehaztapena eta kontratu txikien erabilera. Gure ustez hor badago lana egiteko, 1.800.000 € gastatu direlako kontratu txikietan. Pentsatzen dugu azterketa egin behar dela horren inguruan. Aldi berean azpimarratu nahi dugu Urbialde plazan emandako prozedura ez egokia. Horrezaz gain, PSOEko ordezkariak era esandakoa, hau da, kreditu aldaketetan erabilitako diru kopurua, 3.5 milioiko superabita, 17 milioi eta erdiko gerakina…Guri datu horiek zer pentsatua ematen digute. Enpresa pribatu ikuspegi batetik datu positiboak izan daitezke, baina erakunde publiko batek beste eginkizun batzuk ditu eta aztertu egin beharko litzateke dirua zertara bideratzen den. Ekonomia saneatua du Udal honek baina iruditzen zaigu hauek guztiak esan behar direla, dirua hobeto kudeatu ahal izateko.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Aceptamos. Es el cierre del presupuesto, pero hay informaciones que pasan desapercibidas en los medios de comunicación. Nos parece interesante informar a la ciudadanía de esta liquidación presupuestaria porque es la foto de la gestión económica. Se han mencionado datos relevantes y a mí me gustaría hacer referencia a las mejoras señaladas en el informe de la interventora en materia de contratación: la concreción de las fechas de plazo y finalización del contrato y la utilización de los contratos menores. Creemos que ahí hay un trabajo por hacer porque se han gastado 1.800.000 € en contratos menores. Pensamos que hay que hacer un análisis al respecto. Al mismo tiempo queremos subrayar el procedimiento inadecuado dado en la plaza Urbialde. Además, lo dicho por la representante del PSOE, es decir, la cantidad utilizada en las modificaciones de crédito, un superávit de 3.5 millones, un remanente de 17 millones y medio, son datos que nos dan mucho que pensar. Desde una perspectiva de empresa privada pueden ser datos positivos, pero una institución pública tiene otras funciones y habría que analizar a qué se destina el dinero. Este Ayuntamiento tiene una economía saneada, pero creemos que hay que decir todo esto para poder gestionar mejor el dinero.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aurrekontuak dira eta noski, saiatzen gara ahalik eta ajustatuenak izaten, baina ikusten den bezala kreditu aldaketak suertatzen dira urtean zehar ustekabekoak ematen direlako eta besteetan izandako mugak izanda gure aukera izan delako eta gerakina dugunez, partida irekitzen dugu asmo bat azalduz eta proiektua egikaritu behar denean irekitako partida handitu egiten dugu.

Kontu Orokorra jendaurrean egon da eta jendaurrean egoten interes handirik ez badu ere, ez daukagu ezer ezkutatzeko. Tokatzen denean esaten dugu zein den gure gerakina, mailegurik ez dugula, etab, baina egia da likidazioak ez duela ematen komunikatzeko ezer berezirik.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “son presupuestos y por supuesto, intentamos ser lo más ajustados posibles, pero como se ve las modificaciones de crédito se deben a que a lo largo del año se dan imprevistos y otras veces teniendo en cuenta las limitaciones que existen ha sido nuestra opción ya que tenemos un remanente, abrimos la partida explicando una intención y cuando hay que ejecutar el proyecto aumentamos la partida existente.

La Cuenta General ha estado en exposición pública y aunque no genere mucho interés, no tenemos nada que ocultar. Cuando toca decimos cuál es nuestro remanente, que no tenemos préstamos, etc, pero es cierto que la liquidación no da nada especial que comunicar. Has dicho los puntos que se mencionan en el

Kontuhartzailearen txostenean aipatzen direnak esan dituzu. Obren hasiera eta amaierarekin gertatzen denari buruz esan, hirigintzako teknikaria kontuhartzailearekin egon dela eta horren ondorioz, bide bat egingo dela datorren urtean hori hobetzeko. Lanketa hori hasita dago kontuhartzaileak egindako iradokizunari erantzunez. Kontratu txikiak: 1.800.000 €. 2015etik gobernuan gaude eta ordutik hona kontratu txikien izapidetze eta erregularizatzean egin den esfortzua eta egin den ibilbidea aipatzekoa da. Teknikariek egin duten esfortzua Legera egokitzeko (legeak geroz eta gehiago eskatzen du), handia da. Hala ere puntu asko geratzen dira hobetzeko, baina bide horretan jarraitzeko asmoa dugu. Horren adibide gisa esan, hainbat garrantzizko lizitazioak egin direla. Urbialdeko obra: 2015ean obra esleituta jaso genuen. Orduko egoera oso ezberdina zen, izan ere, orduan kontratistek izugarrizko bajak egiten zituzten eta obra honetan bereziki baja horren ondorioak jasan ditugu, hala nola, obra bukatu baino lehen ur-jarioak hasi ziren eta urak jaso behar izan ziren lehen ur-jarioak ez zeuden tokian. Ahalik eta txukunena konpontzea tokatu zaigu nahiz eta horretarako denbora behar izan. Horren inguruan egindako lan-ordainketa eginzen legeak, salbuespenez, uzten den moduari eutsiz.”

informe de la interventora. Sobre lo que ocurre con el inicio y final de las obras decir que el técnico de urbanismo ha estado con la interventora y que como consecuencia de ello se va a hacer un camino para mejorarlo el año que viene. Este trabajo ya se ha iniciado en respuesta a la sugerencia realizada por la interventora. Contratos menores: 1.800.000 €. Estamos en el gobierno desde 2015 y desde entonces es de destacar el esfuerzo y la trayectoria en la tramitación y regularización de los contratos menores. El esfuerzo que han hecho los técnicos para adaptarse a la Ley, que cada vez exige más, es enorme. Aún así quedan muchos puntos por mejorar, pero tenemos la intención de seguir en ese camino. Como ejemplo de ello, se han realizado diversas licitaciones de relevancia. Obra de Urbialde: en 2015 recibimos la obra adjudicada. La situación de entonces era muy diferente, ya que entonces los contratistas ofertaban unas bajas tremendas y en esta obra hemos sufrido especialmente las consecuencias de esa baja, como el inicio de los flujos de agua antes de la finalización de la obra y la necesidad de recoger las aguas donde antes no las había. Nos ha tocado arreglarlo lo mejor posible aunque nos ha llevado tiempo hacerlo. Los pagos de los trabajos realizados se han hecho como permite la ley por excepción.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estoy de acuerdo en que los gastos que se hayan hecho se asuman, pero lo que nosotros reivindicamos es una mejor gestión del presupuesto. Que se recojan unas partidas está bien, pero que luego la realidad sea bastante superior a lo consignado inicialmente es un maquillaje y eso se hace para que las grandes cifras no asusten.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Hori zure iritzia izango da. Nire iritzia ondorengoa da: partida bat irekitzen dugunean ziur gaude aurreikusten den proiektua exekutatu beharrean izango garela gure herriaren onerako delako. Denok badakigu hasierako kopuruarekin inora ez goazela. Partida hori osotasunean jarriko bagenu, beste hainbat gauza jartzeko aukerarik ez genuke izango.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “esa es tu opinión. Mi opinión es la siguiente: cuando abrimos una partida estamos seguros de que vamos a tener que ejecutar el proyecto que se prevé porque es por el bien de nuestro pueblo. Todos sabemos que con la cifra inicial no vamos a ninguna parte. Si pusiéramos esa partida en su totalidad, no podríamos incluir otras cosas.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da 2021eko Kontu Orokorra.

Tras debatir el asunto suficientemente se ha sometido a votación aprobándose por unanimidad la Cuenta General del 2021.

c.- <u>ASEGURUEN KONTRATUAK LUZATZEA</u>.2018PEBO0026

c.- <u>PRÓRROGA DE LOS CONTRATOS DE SEGUROS.</u>

Ezagutzera eman da Antolakuntza Batzordearen proposamena kontratuak luzatzeko:

*“AURREKARIAK*

*I.- 2018-04-26. Udalbatza Osoaren erabakia lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzeari buruzkoa, Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen aseguruak kontratatzeko.*

*II.- 2018-06-28. Lizitazio prozedura burutu ondoren, Udalbatza Osoak erabaki zuen, Aseguru pribatuen 1, 2, 3 eta 4 zatiak, hau da, higiezin eta higigarriei kalteak, erantzukizun zibila, ibilgailuak eta erraldoi eta buruhandi konpartsari asistentzia sanitarioa ematea ondorengoari esleitzea: SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri . esleitzea eta Aseguru pribatuen 5. zatia, hau da, kargu publiko eta enplegatuen erantzukizun zibil profesionala; ondorengoari esleitzea: AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA.*

*III.- Lizitatzaileek Kontratu Legearen 150. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu ondoren, Alkateak (plenoak horretarako baimena eman da), uztailaren 24an Ebazpena eman zuen behin betiko esleipena eginez.*

*IV.- 2018-08-21ean, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin eta AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA zegozkion kontratuak sinatu ziren. Bi kasutan egikaritze epea ondorengoa izanik: bi urtekoa, 2018ko IRAILAREN 1etik kontatzen hasita, baina kontratua beste hiru urtetan luzatzeko aukerarekin. Luzapenak urte betekoak izatea aurreikusten da eta espresuki kontratazio organoarekin adostuak izan beharko dira. Enpresariarentzat derrigorrezkoak izango dira, beti ere, bere aurre-abisua kontratuaren iraupen epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.*

*V.- 2018-10-30ean, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin kontratua aldatzen da, aseguratutako ondasunen artean Loinatz futbol zelaia aurreikusteko. Gehitutako ondasunagatik primaren kostua, 1.071,62 €koa da. Ondasun aseguruaren prima 2019-09-01eraino, 36.735,25*

Se ha dado a conocer la propuesta de prórroga de contrato de la Comisión de Organización:

*“ANTECEDENTES*

*I.- 26-04-2018. Acuerdo del Pleno relativo a la aprobación del procedimiento de licitación y del pliego administrativo y técnico para la contratación de seguros del Ayuntamiento de Beasain y sus Organismos Autónomos.*

*II.- 28-06-2018. Tras el procedimiento de licitación, el Pleno de la Corporación acordó asignar a SEGUROS LAGUN ARO, S.A. los Lotes 1, 2, 3 y 4 de Seguros Privados, esto es, daños a inmuebles y muebles, responsabilidad civil, vehículos y asistencia sanitaria a la comparsa de gigantes y cabezudos, así como el Lote 5 de Seguros Privados, esto es, la responsabilidad civil profesional de los cargos públicos y empleados, asignando a AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA.*

*III.- Presentada por los licitadores la documentación prevista en el artículo 150 de la Ley de Contratos, el Alcalde (autorizado por el Pleno) dictó Resolución de 24 de julio con adjudicación definitiva.*

*IV.- Con fecha 21/08/2018 se suscribieron los correspondientes contratos CON SEGUROS LAGUN ARO, S.A. y AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA. El plazo de ejecución será de dos años a contar desde el 1 de SEPTIEMBRE de 2018, con posibilidad de prórroga del contrato por otros tres años. Se prevé que las prórrogas sean de un año y deberán ser acordadas expresamente con el órgano de contratación. Serán obligatorios para el empresario siempre que su preaviso se produzca dos meses antes de la finalización del plazo de duración del contrato.*

*V.- Con fecha 30-10-2018 se modifica el contrato con SEGUROS LAGUN ARO, S.A. para prever entre los bienes asegurados el campo de fútbol de Loinatz. El coste de la prima por el bien añadido es de 1.071,62 €. La prima del seguro de bienes hasta el 01-09-2019 es de 36.735,25*

*€koa da. Hurrengo ekitaldietarako, aldiz, 36.794,06 €koa izango da.*

*€. Para los siguientes ejercicios será de 36.794,06 €.*

*VI.- Kontratuak, 2020-08-31ean amaitzen dira eta Kontratuaren arduradunak (), 2020-05-27an txostena eman du adieraziz ezarritako helburuak behar bezala eta osorik bete direla eta kontratua beste urtebetez luzatzea proposatzen dela.*

*VI.- Los contratos finalizan el 31-08-2020 y el 27-05-2020 el responsable del contrato emite informe indicando que se han cumplido satisfactoriamente y en su totalidad los objetivos establecidos y que se propone la prórroga del contrato por un año más.*

*VII.- Udalbatza Osoak 2020-06-29an egindako bileran erabaki zuen kontratuak beste urte betez luzatzea. Bi luzapen kontratuak formalizatu ziren eta biak amaitzen dira 2021-08-31n.*

*VII.- El Pleno de la Corporación acordó en la sesión del 29-06-2020 la prórroga del contrato por un año más. Se formalizarón las dos prórrogas de contratos y finalizan los dos el 31-08-2021.*

*VIII.- 2021-05-27an, Kontratuaren arduradunak luzatzeko aldeko txostena eman du eta 2021-0611ko datarekin, 9/2017 Legearen 29. artikuluak dioen bezala bi aseguru etxeei aurre-abisua bidali zaie adieraziz kontratuak, beste urte betez, luzatzeko aukera erabiliko dela. Ez bata eta ez besteak ez zuten aurre-abisu horrekiko ezer jakinarazi.*

*VIII.- El 27-05-2021 el responsable del contrato emite informe favorable a a la prórroga del contrato y el 11-06-2021, tal y como* establece el artículo 29 de la *Ley 9/2017, se ha enviado un preaviso a ambas aseguradoras indicando que se utilizará la posibilidad de prorrogar los contratos por un año más. Ninguno de los dos comunicó nada respecto a este preaviso.*

*IX.- Udalbatza Osoak 2021-07-01ean egindako bileran erabaki zuen kontratuak beste urte betez luzatzea. Bi luzapen kontratuak formalizatu ziren eta biak amaitzen dira 2022-08-31n.*

*IX.- El Pleno de la Corporación acordó en la sesión del 01-07-2021 las prórroga de los contratos por un año más. Se formalizarón las dos prórrogas de contratos y ambos finalizan el 31-08-2022.*

*Esan beharra dago, ordea, 2021-08-06ko datarekin, posta elektronikoaren bidez aseguradoreak jakinarazten du 2018-12-20ko eskrituraren bidez, AIG EUROPE LIMITEDek bere kontratu europar guztiak transferitu ziola AIG EUROPE, S.A. Horrela, AELen Espainiako sukurtsalari esleitutako aktiboak, kontratuak eta pasiboak AESAren Espainiako sukurtsalari esleitu zaizkio. Horren ondorioz, 2018-12-01etik, AELren Espainiako sukurtsalak egindako negozioa AESAren Espainiako sukurtsalak egiten du.*

*Con fecha 6 de agosto de 2021, el Asegurador comunica por correo electrónico que, mediante escritura de 20 de diciembre de 2018, AIG EUROPE LIMITED le transfirió la totalidad de sus contratos europeos, AIG EUROPE, S.A., adjudicándole los activos, contratos y pasivos adjudicados a la sucursal española de AEL. En consecuencia, con fecha 01/12/2018, el negocio realizado por la sucursal española de AEL es realizado por la sucursal española de AESA.*

*Horren ondorioz, bigarren kontratu luzapena kargu publiko eta enplegatuen erantzukizun zibil profesionalei buruzkoa, "AIG EUROPE, S.A. Sucursal en España" rekin sinatu zen.*

*En consecuencia, la segunda prórroga contractual, referida a las responsabilidades civiles profesionales de los cargos públicos y empleados, se suscribió con la empresa «AIG EUROPE, S.A. Sucursal en España».*

*X.- Kontratuak, 2022-08-31ean amaitzen dira eta Kontratuaren arduradunak, 2022-06-27an txostena eman du ondorengoa adieraziz ezarritako helburuak behar bezala eta osorik bete direla, kontratua beste urtebetez luzatzea*

*X.- Los contratos finalizan el 31/08/2022 y el Responsable del Contrato emite informe el 27/06/2022 indicando que los objetivos fijados se han cumplido satisfactoriamente y en su totalidad, proponiendo la prórroga del contrato por un año más, para lo cual se ha enviado un*

*proposatzen dela eta horretarako bi aseguru etxeei aurre-abisua bidali zaie. Idazkaritza eta Kontuhartzailetzako txostenak ere eman dira (2022ko ekainaren 14 eta 16an).*

*XI.- Baldintza pleguaren 6. artikuluaren arabera, prezioa berrikusteko aukerarik ez dago. Primaren kopurua bakarrik aldatuko da aseguratutako ondasunen kopuru aldaketak daudenean, (bajak eta gehitzeak), edota Udal aurrekontuko Quantuma aldatzen denean kontratazio organoak ekintza honetarako ahalbidetu duen Alkatearen aurretiazko onarpen espresuarekin.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Kasu honetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legea Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duena aplikatu behar da (29. artikulua). Luzapena aurreikusita egon behar da eta espresuki erabakia hartu behar da. Ezin dena da, tazituki luzatzea. Luzapena IV. Aurrekarietan esanda bezala, baldintza administratibo pleguaren 2. artikuluan eta kontratuetan aurreikusia dago.*

*Horren ondorioz, proposamen hau egiten zaio Udalbatza Osoari:*

*Kontratuak luzatzea beste urte betez, hau da, 2023-08-31arte. Baldintza plegu eta kontratuaren arabera, hau da azken luzapena egin daitekeena."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu da proposamena.

*preaviso a ambas aseguradoras. También se han emitido informes de Secretaría e Intervención (14 y 16 de junio de 2022).*

*XI.- Según el artículo 6 del pliego de condiciones, no cabe la posibilidad de revisión del precio. La cuantía de la prima sólo variará cuando se produzcan variaciones en el número de bienes asegurados (bajas e incrementos), o cuando se modifique el Quantum del Presupuesto Municipal con la aprobación previa expresa del Alcalde que el órgano de contratación haya permitido para este acto.*

*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*

*En este caso es de aplicación la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (art. 29). La prórroga debe estar prevista y debe adoptarse un acuerdo expreso. Lo que no puede ser es que se alargue tácitamente. Prórroga IV. Dicho en los antecedentes, está previsto en el artículo 2 del pliego de cláusulas administrativas y en los contratos.*

*Por tanto, la Comisión de Organización, eleva al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Prorrogar los contratos por un año más, es decir, hasta el 31-08-2023. Según pliego de condiciones y contrato, siendo la última prórroga."*

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA, ONDORENGO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIORAKO: Loinatz eguneko zentroko erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua. 2022BIBO0003

**3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA**:

a.- APROBACIÓN DE PLIEGOS DE CONDICIONES PARA LICITAR LA CONTRATACIÓN DE LOS SIGUIENTES SERVICIOS: Uso y gestión del centro de día Loinatz y servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Beasain

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena eta lizitazioaren ezaugarri garrantzitsuenak aipatu dira:

*“1.- Prozedura*: irekia publizitatearekin eta erregulazio harmonizatuaren mende dagoena. Lizitazio elektronikoa.

*2.- Izapidetzea*: arrunta
*3.- Lizitazio prezioa urteko:* 446.298,37 € + BEZ (eguneko zentroa) eta 954.534,50 € + BEZ(etxez etxeko laguntza)

*4.- Egikaritze epea*: 3 urte. *Luzatzeko aukera*: bi luzapen, bakoitza urte betekoa.

*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 2.101.249,30€ kopuru honen berdina edo handiagoa. 2017ko SPKLko 87.3.a artikuluaren 2.paragrafoan adierazitako moduan kreditatuko da.

*6.- Kaudimen teknikoa:*

*a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, zehazki kontratuaren xede direnen antzekoak. Zehaztu behar dira lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua). Gaitasun-maila egokia dela ziurtatzea behar izanez gero, esleitzaileek adieraz dezakete azken hiru urteetatik atzera egindako zerbitzuen frogagiriak kontuan hartuko dituztela. Kontratazio-organoaren mende dauden zerbitzuek hala eskatuz gero, egindako lan eta zerbitzuen hartzailea sektore publikokoa bada, lan eta zerbitzu horiek organo eskudunak egin edo onetsitako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira; eta hartzailea subjektu pribatua izanez gero, berriz, hark egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiririk ez edukiz gero, enpresaburuaren adierazpena eta lan hori egin duela egiaztatzen duten agiriak. Hala badagokio, ziurtagiri horiek kontratazio-organoari emango dizkio zuzenean eskumena duen agintaritzak.*

*Egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoak diren ala ez jakin ahal izateko, plegu honetako 1.klausulan adierazitako*

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Ciudadanía y se mencionan características más reseñables de la licitación:

1.- *Procedimiento*: abierto con publicidad y sujeto a regulación armonizada. Licitación electrónica.
2.- *Tramitación*: ordinaria
3.- *Precio de licitación anual*: 446.298,37 € + IVA (centro de día) y 954.534,50 € + IVA (ayuda domiciliaria)

4.- *Plazo de ejecución*: 3 años. Posibilidad de prórroga: dos prórrogas, de un año cada una.
5.- *Solvencia económica y financiera*:
Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 2.101.249,30€ acreditada de la manera indicada en el artículo 87.3.a.párrafo 2º de la LCSP 2017.

6.- *Solvencia técnica*:

*a) Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo los tres últimos años, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos; cuando sea necesario para garantizar un nivel adecuado de competencia los poderes adjudicadores podrán indicar que se tendrán en cuenta las pruebas de los servicios pertinentes efectuados más de tres años antes. Cuando le sea requerido por los servicios dependientes del órgano de contratación los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por este o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario acompañado de los documentos obrantes en poder del mismo que acrediten la realización de la prestación; en su caso, estos certificados serán comunicados directamente al órgano de contratación por la autoridad competente.*

*Para determinar si un servicio es de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del contrato, se deberá acudir a los códigos CPV*

*CPV kodigoak dira kontuan izan beharrekoak. Lizitatzaileak emandako zerbitzuak aipatutako CPV kodigo horiek osatu behar dute: 85310000-5 (Gizarte laguntzako zerbitzuak) 85320000-8 (Gizarte-zerbitzuak), 85312100-0 (Eguneko zentroko zerbitzuak).*

*b) Esleipendunak beharrezko giza baliabide guztiak izango ditu, eta haren ardura izango dira langileekiko lan harremanak eta beste era batekoak, baita kontratuaren xedea ondo eta eraginkorki betetzeko egin beharko diren ordezkapenak ere.*

*Modu berean, zerbitzuen prestazioari atxikitako langileek ezinbesteko kualifikazioa eta titulazioa izango dituzte zerbitzuak era profesionalean eskaintzeko.*

*Zehazki, kontratuaren xedea gauzatuko duten pertsonek honako titulazioak egiaztatu beharko dituzte agiri ofizialen bidez:*

*1.Zerbitzu bakoitzaren koordinatzailea ( Loinatz eguneko zentroa eta etxez etxeko laguntza zerbitzua):*

*- Giza eta gizarte-zientziekin lotutako diziplinaren batean diplomatura, gradua edo lizentzia izatea.*

*- Prestakuntza osagarria, mendetasunarekiko eta/edo gerontologiarekiko arretarekin zerikusia duten arloetan.*

*- Hizkuntza-gaitasuna: Europako Erreferentzia Markoko C1 hizkuntza-gaitasunaren maila.*

*2. Kontratua gauzatzeko ardura duten langileak, zaintzaileak: titulazio hauetakoren bat:*

*Eguneko zentrorako:*

*- Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikaria.*

*- Arreta soziosanitarioko teknikaria.*

*- Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonei arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun-ziurtagiria.*

*<u>Etxez etxeko laguntza zerbitzurako</u>:*

*Eguneko zentrorako adierazitako edozein titulazioz gain:*

*indicados en la cláusula 1 de este pliego, debiendo los servicios prestados por el licitador ser comprensivos de los CPV indicados, esto es: 85310000-5 (Servicios de asistencia social), 85320000-8 (Servicios sociales), 85312100-0 (Servicios de centro de día).*

*b) La adjudicataria dispondrá de todos los recursos humanos necesarios, siendo de su competencia la relación laboral o de otro tipo de dicho personal y las sustituciones del personal que pudieran ser necesarias para la correcta y eficaz prestación del objeto del contrato.*

*De igual forma el personal adscrito a la prestación de los servicios deberá disponer de la cualificación y titulación imprescindible para garantizar la realización profesional de los servicios.*

*En concreto, las personas que van a ejecutar el objeto del contrato deberán acreditar por medios oficiales las siguientes titulaciones:*

*1.Coordinador/a para cada uno de los servicios (centro de día Loinatz y servicio de ayuda a domicilio):*

*-Poseer diplomatura, grado o licenciatura en alguna disciplina relacionada con las Ciencias humanas y social.*
*-Formación complementaria en áreas relacionadas con la atención a la dependencia y/o gerontología.*
*-Competencia lingüística: Nivel de competencia lingüística C1 del Marco Europeo de Referencia.*

*2. Personal responsable de la ejecución del contrato, personas cuidadoras: cualquiera de las titulaciones que a continuación se indican:*

*<u>Para el centro de día:</u>*

*-Técnico en cuidados auxiliares de enfermería.*
*-Técnico de atención sociosanitaria.*
*-Certificado de profesionalidad de atención sociosanitaria a personas dependientes en instituciones sociales.*

*<u>Para el servicio de ayuda a domicilio:</u>*

*Además de cualquiera de las titulaciones indicadas para el centro de día:*

*- Pertsonei etxean arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun-ziurtagiria.*

*Esleipena bereganatzen duen enpresak, ahal duen neurrian, bermatu egin behar du zerbitzuaren erabiltzaile euskaldunei edota hala eskatzen dutenei zerbitzua emateko langileek duten euskararen ezagutza.*

*c) Zerbitzu bakoitzeko koordinatzaileaz gain, enpresa lizitatzaileak pertsona bat izendatuko du koordinatzaile tekniko edo arduradun gisa, eta haren bidez helaraziko zaio Beasaingo Udalari enpresa kontratistaren langileek kontratuaren xedeari lotuta (eguneko zentroaren zerbitzua et etxez etxeko laguntza zerbitzua) egin nahi duten edozein komunikazio. Honi ere hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea eskatuko zaio.*

*Hizkuntza gaitasuna bi modu hauetako baten bidez egiaztatuko da:*

- *Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzaren Europako Erreferentzi Marko Bateratuko maileki parekateko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagirak.*
- *Edozein Euskaltegi homologatuk emandako agiria.*

*d) Enpresa lizitatzaileak Beasaingo udalerrian bulego bat izan beharko du hirigunean edo 2 km-ko erradioan edo, esleipendun izanez gero, bulego bat izateko konpromisoa aurkeztu beharko du, enpresak langileekin dituen harremanak errazteko.*

*7.- Aurkezteko epea, ordua eta lekua*: 30 egun natural, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita. Oru-muga: 23,55arte. Lizitazio elektronikoa.

*8.- Adjudikazio irizpideak*:

.

*-Certificación de profesionalidad de atención sociosanitaria a personas en el domicilio.*

*La empresa adjudicataria deberá garantizar, en la medida de lo posible, el conocimiento del euskera en aquellos trabajadores asignados a usuarios euskaldunes o personas usuarias que así lo soliciten.*

*c) Además de las coordinadoras para cada uno de los servicios, la empresa licitadora designará una persona como coordinadora técnica o responsable a través de la cual se realizará la recepción y transmisión de cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista deba realizar al Ayuntamiento de Beasain en relación con la ejecución del contrato ( servicio de centro de día y servicio de ayuda a domicilio), a quien también se le exigirá en cuanto a competencia lingüística, el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia*.

*La competencia lingüística se acreditará de alguna de las dos maneras siguientes:*

- *Títulos y certificados regulados por Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles Marco Común Europeo de referencia para las lenguas.*
- *Certificado emitido por cualquier Euskaltegi homologado.*

*d) La empresa licitadora deberá contar con una oficina en el municipio de Beasain, en el núcleo urbano o en un radio de 2 km.o presentar compromiso de disponer de una oficina en caso de resultar adjudicataria, al objeto de facilitar las relaciones de la empresa con las trabajadoras*.

*7.- Plazo, hora y lugar para la presentación de proposiciones*: 30 días naturales a contar desde la fecha de envío del anuncio de licitación a la Oficina de Publicaciones de la Unión Europea. Límite de tiempo: hasta 23,55. Licitación electrónica.

*8.- Criterios de adjudicación*:

1 Xedea: Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa:

- 1. irizpidea, formula automatikoekin ebaluaezinak: 50 puntu.

- Txosten teknikoa: Gehienez 50 p.
Enpresa lizitatzaileek txosten teknikoa aurkeztu beharko dute, ondorengoa adieraziz:

- Laneko metodologia eta zerbitzuaren antolaketa: erabiltzailearekiko, kolektiboarekiko, familiekiko, herritarrekiko. (25p)

- Giza baliabideak: antolaketa, kategoriak eta horietako bakoitzean egin beharreko zereginak, profesional bakoitzaren dedikazioa, lanegunetan zein jaiegunetan eta egutegia. (15p)

- Gorabeherak kontrolatzea eta kudeatzea: Ospitaleratzeak, zentroko bat bateko-itxiera, konfinamenduak, heriotza. (5p)

- Barneko zerbitzuaren koordinazioa (enpresa-langileak) eta kanpokoa (enpresa-Udala) eta jarraipena eta ebaluaketa sistema (5p)

Txosten teknikoa gehienez ere 40 orrietan 2 aldeetatik garatuko da; letra arial, 10 tamaina gutxienekoa eta A4 formatuan. Ezarritako gehiengo kopurua gainditzen bada, 5 orri bakoitzeko -2 puntuekin edo frakzioa penalizatuko da. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azala eta aurkibidea, ezta ere eranskinak eta edozein motatako dokumentazio osagarri.

2017 SPKLko 146,3 artikuluaren arabera, hurrengo fasera pasatzeko gutxienez %50eko puntuazioa lortu beharko da.

- 2. Irizpidea: formula auatomatikoen bidez ebaluatzen direnak: 50 puntu

1-Proposamen ekonomikoa: Gehienez 47,5 puntu era honetan banatuta:

-Laguntza astelehenetik ostiralera 20p arte.
-Garraioa astelehenetik ostiralera 10p arte.
-Laguntza asteburu eta jaiegunetan 14p arte
-Garraioa asteburu eta jaiegunetan 3,5p arte.

Objeto 1: Uso y gestión del centro de día Loinatz de Beasain:

- Criterio 1 no evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos

-Memoria técnica o proyecto: Máximo 50 p.
Las empresas licitadoras deberán presentar una memoria técnica, en la que se describirán:

- Metodología de trabajo y organización del servicio: respecto a la persona usuaria, al colectivo, a las familias, a la ciudadanía. (25p)
- Recursos humanos: organización, categorías y tareas a desarrollar en cada una de éstas, dedicación horaria de cada profesional, tanto en día laborable como festivo y calendario. (15p)
- Control y gestión de incidencias: hospitalizaciones, cierre repentino del centro, confinamientos, fallecimiento. (5p)
- Sistema de coordinación interna (empresa-trabajadoras) y externa (empresa-Ayuntamiento) y seguimiento y evaluación del servicio (5p).

La memoria técnica deberá desarrollarse en un máximo de 40 hojas a 2 caras, tamaño mínimo 10 de letra arial y formato A4. Se penalizará con -2 puntos por cada 5 páginas o fracción que supere la cantidad máxima fijada. No se contabilizarán ni la portada , ni el índice para poder entender la propuesta, ni los anexos ni cualquier documentación adicional.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 146,3 de la LCSP 2017, el umbral mínimo para pasar a la siguiente fase, será del 50%

- Criterio 2 evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos

1- Oferta económica:. Máximo 47,5 p. repartidos de la siguiente manera:

- Asistencial de lunes a viernes hasta 20p.
- Transporte de lunes a viernes hasta 10p.
- Asistencial fin de semana y festivos hasta 14p.

Plegu honetako 4. Klausulan ezartzen den lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

FORMULA

Modalitate bakoitzari dagokion zatia honela kalkulatuko da:

0 puntu emango zaizkio modalitate bakoitzeko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.
B: Baja = 1 - (Eskainitako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua).
Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

Puntuazio osoa modalitate bakoitzeko lortutako puntuen baturarekin lortuko da.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO ESKAINTZAK

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 15 puntu beherago dauden eskaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

2.- Hobekuntzak: prestazio gehigarriak (2,5p):

- Podologia: 1.25 p
- Pelukeria: 1,25p.

-Transporte fin de semana y festivos hasta 3,5p.

No se admitirá ninguna proposición en el que el precio ofertado sea superior al precio de licitación establecido en la cláusula 4 de este Pliego.

FORMULA

La parte correspondiente a cada modalidad se calculará de la siguiente manera:

Se calculará otorgando 0 puntos al precio máximo de cada modalidad e incrementando 2 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja supere el 50%, en cuyo caso se le otorgarán 100 puntos y se interpolará el resto.

Para Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Para Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Siendo,

P: Puntuación de la oferta a valorar
B: Baja = 1 - (Precio ofertado) / (Presupuesto máximo de licitación)
Bmax: Baja máxima admitida

Al resultado así obtenido, se le aplicará el porcentaje que representa este apartado económico en el total de puntos.

La puntuación total se obtendrá con la suma de puntos obtenidos por modalidad.

OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

Se considerará oferta anormalmente baja, aquella cuya baja sea 15 puntos inferior a la media de las ofertas admitidas. Se considerará como parámetro objetivo para determinar la inviabilidad de la oferta económica aquellas que no alcancen a cubrir los costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc.

2.- Mejoras: prestaciones adicionales (2,5p):

- Podología: 1,25p.

2.Xedea: Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- 1 Irizpidea, formula automatikoekin ebaluaezinak: 50 puntu.

Esku-hartze proiektua: Gehienez 50p.

Enpresa lizitatzaileek txosten teknikoa aurkeztu beharko dute, ondorengoa adieraziz:

- Laneko metodologia eta zerbitzuaren antolaketa: erabiltzailearekiko, kolektiboarekiko, familiekiko, herritarrekiko. (25p)

- Giza baliabideak: antolaketa, kategoriak eta horietako bakoitzean egin beharreko zereginak, profesional bakoitzaren dedikazioa, lanegunetan zein jaiegunetan eta egutegia. (15p)

- Gorabeherak kontrolatzea eta kudeatzea: Ospitaleratzeak, zentroko bat bateko-itxiera, konfinamenduak, heriotza. (5p)

- Barneko zerbitzuaren koordinazioa (enpresa-langileak) eta kanpokoa (enpresa-Udala) eta jarraipena eta ebaluaketa sistema (5p)

Txosten teknikoa gehienez ere 40 orrietan 2 aldeetatik garatuko da; letra arial, 10 tamaina gutxienekoa eta A4 formatuan. Ezarritako gehiengo kopurua gainditzen bada, 5 orri bakoitzeko -2 puntuekin edo frakzioa penalizatuko da. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azala eta aurkibidea, ezta ere eranskinak eta edozein motatako dokumentazio osagarri.

2017 SPKLko 146,3 artikuluaren arabera, hurrengo fasera pasatzeko gutxienez %50eko puntuazioa lortu beharko da.

-2. Irizpidea: formula auatomatikoen bidez ebaluatzen direnak: 50 puntu

1.- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 47,5 p.

- Peluquería: 1,25p.

Objeto 2: Servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Beasain:

- Criterio 1 no evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos

Proyecto de intervención: Máximo 50 p.

Las empresas licitadoras deberán presentar una memoria técnica, en el que se describirán:

- Metodología de trabajo y organización del servicio: respecto a la persona usuaria, al colectivo, a las familias, a la ciudadanía. (25p)

- Recursos humanos: organización, categorías y tareas a desarrollar en cada una de éstas, dedicación horaria de cada profesional, tanto en día laborable como festivo y calendario. (15p)

- Control y gestión de incidencias: hospitalizaciones, cierre repentino del centro, confinamientos, fallecimiento. (5p)

- Sistema de coordinación interna (empresa-trabajadoras) y externa (empresa-Ayuntamiento) y seguimiento y evaluación del servicio (5p).

La memoria técnica deberá desarrollarse en un máximo de 40 hojas a 2 caras, tamaño mínimo 10 de letra arial y formato A4. Se penalizará con -2 puntos por cada 5 páginas o fracción que supere la cantidad máxima fijada. No se contabilizarán ni la portada ni el índice para poder entender la propuesta, ni los anexos ni cualquier documentación adicional.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 146,3 de la LCSP 2017, el umbral mínimo para pasar a la siguiente fase, será del 50%.

- Criterio 2 evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos

1.- Oferta económica:. Máximo 47,5 p.

Plegu honetako 4. Klausulan ezartzen den lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

FORMULA

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen ba-koitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, behe-rapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa inter-polatu egingo da.

Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.
B: Baja = 1 - (Eskainitako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua).
Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO ESKAINTZAK

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 15 puntu beherago dauden es-kaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezinta-suna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, me-diku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrez-koak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

2.- Hobekuntzak: prestazio gehigarriak (2,5p):

- Podologia: 1p
- Pelukeria: 1p.
- Grua: 0,5p.

1 eta 2 xedeetan lortutako puntuazioak gehituko dira.

No se admitirá ninguna proposición en el que el precio ofertado sea superior al precio de licitación establecido en la cláusula 4 de este Pliego.

FORMULA

Se calculará otorgando 0 puntos al precio máximo e incrementando 2 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja supere el 50%, en cuyo caso se le otorgarán 100 puntos y se interpolará el resto.

Para Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Para Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Siendo,

P: Puntuación de la oferta a valorar
B: Baja = 1 - (Precio ofertado) / (Presupuesto máximo de licitación)
Bmax: Baja máxima admitida

Al resultado así obtenido, se le aplicará el porcentaje que representa este apartado económico en el total de puntos.

OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

Se considerará oferta anormalmente baja, aquella cuya baja sea 15 puntos inferior a la media de las ofertas admitidas. Se considerará como parámetro objetivo para determinar la inviabilidad de la oferta económica aquellas que no alcancen a cubrir los costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc.

2.- Mejoras: prestaciones adicionales (2,5p):

- Podología: 1p.
- Peluquería: 1p.
- Grúa: 0,5p.

Se procederá a la suma de las puntuaciones obtenidas en el objeto 1 y 2.

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

*10.- Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:*

- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.

- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.

- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak jaso dituzte:

*9.- Lugar, día y hora para la apertura de plicas*: La apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se indique en el perfil del contratante.

*10.- Documentación a presentar*: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique en el pliego de condiciones administrativas.

*11.- Condiciones especiales de ejecucion de carácter social:*

- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.

- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.

- Favorecer la formación en el lugar de trabajo."

En el turno de intervenciones los exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros estamos a favor. Lo que se busca es garantizar un servicio óptimo para los ciudadanos, y que se ejecute en condiciones favorables para las trabajadoras."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Orokorrean ikusi dugu zerbitzua baldintza hobeagoan emateko saiakera egin dela ordu eta diru-ekarpen aldetik eta guk egin ditugun zenbait ekarpen ere txertatu dira. Eskertzekoa da baita ere, beste gai batzuetan eskatu dugun bezala, bi batzordetik pasatu ahal izana, teknikariekin bilerak egitea eta tartea izatea proposamenak egiteko. Hala ere EH Bilduk orokorrean zaintza zerbitzu hauekin hausnarketa zabala egiten ari da, aurre pausoak emateko. EH Bilduk antolatutako hitzaldi batean Hernani, Usurbil eta Zestoako alkateek ikuspegi komunitarioa azaldu dute beraien herrietan. Guretzat plegu hauek badira zaintzen lanen-demokratizaziorako tresna bat, baina iruditzen zaigu zentzu batean anbizio gehiagorekin ere jokatu daitekeela, langileen baldintzak hobetze arren. Nahiko argi geratu zaigu plegu hauek ez direla langileen baldintzak hobetzeko baizik eta zerbitzua hobetzeko. Ezin ditugu langileen

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "en general, hemos visto que se ha intentado dar el servicio en mejores condiciones en cuanto a horas y aportaciones económicas y se han incorporado algunas aportaciones que hemos hecho nosotros. También es de agradecer que, como hemos pedido en otros temas, se haya podido pasar por dos comisiones, mantener reuniones con técnicos y tener margen para hacer propuestas. Sin embargo, EH Bildu está realizando una amplia reflexión sobre estos servicios de cuidados en general para dar pasos adelante. En una conferencia organizada por EH Bildu, los alcaldes de Hernani, Usurbil y Zestoa han mostrado la visión comunitaria en sus pueblos. Para nosotros estos pliegos son una herramienta para la democratización laboral de los cuidados, pero nos parece que en cierto sentido también se puede actuar con más ambición, aunque se mejoren las condiciones de los trabajadores.

baldintzak hobetu. Hori da behintzat azpimarratu zaiguna egindako proposamen batzuekiko. Agian ez dugu lortuko zerbitzua publifikatzea, baina bai iruditzen zaigu udal gobernuak nahi izan ezkero kontrol gehiago egin beharko lukeela eta zaintza lan hauek beste ikuspegi batekin landu beharko lituzkela. Pandemiak ere erakutsi digu zaintzan begiak jartzeko garaia dela. Agintean egongo bagina ez genituzke plegu mota hauek formulatuko. Abstenitu egingo gara."

Nos ha quedado bastante claro que estos pliegos no son para mejorar las condiciones de los trabajadores sino para mejorar el servicio. No podemos mejorar las condiciones de los trabajadores. Al menos eso es lo que se nos ha subrayado respecto a algunas de las propuestas realizadas. Tal vez no consigamos publificar el servicio, pero sí nos parece que el gobierno municipal debería hacer más controles si lo desea y tratar estas trabajos de cuidados con otra perspectiva. La pandemia también nos ha enseñado que es hora de poner los ojos en los cuidados. Si estuviéramos en el gobierno no formularíamos este tipo de pliegos. Nos abstendremos.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Udalak apustua egin du zerbitzua gaurko egoerara egokitu ahal izateko. Legeak ere bere mugak jartzen ditu, adibidez, langileen subrogazioarekiko."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): el Ayuntamiento apuesta por adecuar el servicio a la situación actual. La ley también establece sus límites, por ejemplo, respecto a la subrogación de los trabajadores."

Malu Valles Fernández andreak (EAJ-PNV): "En primer lugar dar las gracias por la colaboración prestada para elaborar estos pliegos. Directamente no se puede incidir en mejorar las condiciones de los trabajadores, pero lo que si se ha mejorado es el presupuesto. Ha habido un incremento de 450.000,00 € respecto de la licitación anterior. Considero que es importante señalar la apuesta económica que ha hecho el Ayuntamiento."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Ados. Borondatea ikusi da, nahiz eta langileen baldintzak hobetzeko gehiago ezin arautu."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): De acuerdo. Se ha visto voluntad, aunque no se pueda regular más para mejorar las condiciones de los trabajadores.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (-EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartua da proposamena

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Votos a favor: 11 (-EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)

En consecuencia se ha aprobado lapropuesta con la mayoría absoluta.

**3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**4.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO**:

a.- BEASAINGO UDALAREN, UR AGENTZIAREN ETA CAFEN ARTEKO 2020-01-22KO HITZARMENAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2019IDBO0025

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena:

"*AURREKARIAK*

*2022-06-17ko Alkatearen memoriaren arabera, aipatutako hitzarmena aldatzea udal interesekoa da.*

*Jarraitu beharreko izapideak 2020-01-22ko hitzarmena onartzeko berberak dira, aldaketa honek hitzarmen hori hartzen duelako oinarritzat.*

*Horren ondorioz, Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio. Onartzeko nahikoa da gehiengo soila:*

*Lehenengoa. Erabaki-proposamen honi atxikitzen zaion Uraren Euskal Agentziak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak sinatzea proposatzen den hitzarmenaren aldaketari hasierako onespena ematea.*

*Bigarrena. Jendaurrean jartzea, hogei laneguneko epean, alegazioak aurkezteko; epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geratuko da.*

*Hirugarrena. Hitzarmenaren aldaketa Kontu Epaitegiari hitzarmena igortzea, konpromisozko kredituak 600.000 € gainditzen dutelako (40/2015 Legearen 53 artikulua).*"

a.- MODIFICACIÓN DE CONVENIO DE 22.01-2020 ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN, LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y CAF. APROBACIÓN INICIAL.

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Territorio:

"*ANTECEDENTES*

*De conformidad con lo señalado en la Memoria de la Alcaldesa de 17-06-2022, se estima de interés municipal aprobar la modificación del convenio citado.*

*Los trámites a seguir son los mismos que los de la aprobación del convenio de 22-01-2020, por traer la modificación causa de éste.*

*En consecuencia, se somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno, la siguiente propuesta de acuerdo para lo cual se precisa la mayoría simple.*

*Primero. Aprobar inicialmente la modificación del convenio a suscribir entre la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Beasain y la empresa CAF, cuyo texto acompaña a la presente propuesta de acuerdo.*

*Segundo. Someterlo a exposición pública por plazo de veinte días hábiles a efectos de presentación de alegaciones, quedando el mismo definitivamente aprobado si en ese período no se presentara ninguna.*

*Tercero. Remitir la modificación del convenio al Tribunal de Cuentas, dado que los compromisos económicos superan los 600.000 € (art. 53 de la Ley 40/2015).*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros nos vamos a abstener porque anteriormente, también fue esa nuestra postura."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Gu ere abstenitu egingo gara, Katalogoaren zerrendan dauden ondasuneekiko zalantzak ditugulako."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "nosotros también nos abstendremos porque tenemos dudas sobre los bienes incluidos en la lista del Catálogo."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin aipatutako ondorengo hitzarmen-aldaketa onartu da.

LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN, BEASAINGO UDALAREN ETA CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA-REN ARTEKOA, UHOLDEAK PREBENITZEKO ORIA IBAIAREN ARROAN, BEASAINGO UDALERRIAN (UAHE) - ES017-GIP-14-1 KODEKO EREMUAN.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ……….. a.

BILDU DIRA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jauna, Besaingo alkate-udalburua Leire Artola Ugalde anderea eta, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A (aurrerantzean CAF) merkataritza-sozietarearen izenean Gorka Zabalegi Aginaga jauna.

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bigarrenak, Alkate Udalburua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak Udala ordezkatzeko ematen dion lege-ahalmena betez.

Hirugarrenak, CAFen izenean, sozietateak duen ahalorde bereziarekin bat etorriz, Mariano-Pablo Melendo Martínez Beasaingo notarioaren aurrean 2019ko urtarrilaren 25ean egiletsitako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 99). Eskritura horren

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 7 (Beasaingo EH Bildu y Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

En consecuencia se ha aprobado la modificación de convenio con la mayoría absoluta.

MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. PARA LA PREVENCIÓN DE INUNDACIONES EN LA CUENCA DEL RÍO ORIA, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE BEASAIN EN EL (ARPSI) - ES017-GIP-14-1.

Vitoria-Gasteiz, ….de ……… de 2022.

SE REUNEN

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua, la Sra. Dña. Leire Artola Ugalde Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Beasain, y el Sr. D. Gorka Zabalegi Aginaga en representación de la Sociedad Mercantil Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A (en adelante C.A.F.).

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

La segunda, en ejercicio de la capacidad legal de representación de su Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

El tercero, en representación de C.A.F., de conformidad con el poder especial que la Sociedad le tiene conferido, mediante escritura otorgada ante el Notario de Beasain, Don Mariano-Pablo Melendo Martínez, el 25 de enero de 2019, número 99 de protocolo, de la que resulta con facultades

bidez, hitzarmen hau sinatzeko ahalmen nahikoa du sozietateak.

Parte hartzen duten aldeek LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- 2020ko urtarrilaren 22an, Uraren Euskal Agentziak, Beasaingo Udalak eta CAFek lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten uholdeak prebenitzeko Oria ibaiaren arroan, Beasaingo udal-mugartean, ES017-GIP-14-1 UAPGGan.

BIGARRENA.- Aipatu hitzarmenaren eskutik, aldeek ondoko konpromisoak hartu zituzten, besteak beste:

a) Agentziak proiektua aurkeztu, proiektuan jasotako obrak kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatu, eta obren kontratazioaren benetako kostuaren %50 finantzatu eta ordaindu.

b) Beasaingo Udalak, bere aldetik, proiektatutako obrak egikaritzeko beharrezkoak diren jarduketak sustatu eta baimentzea, beharrezkoak diren udal-titulartasuneko lursailen okupazioa barne; eragindako lursailen urbanizazioa, eta abar. Era berean, CAFen bulego berriak eraikitzeko eta/edo gaitzeko obrak baimentzea; obren ondoriozko afekzioak erregularizatzeko beharrezkoak diren hirigintza-dokumentuak izapidetu eta onartzea; jarduketak kontratatzeko eta gauzatzeko aurretiko eta beharrezko administrazio-izapideak eta lizentziak ematea, obren benetako kostuaren %50 finantzatzea eta ordaintzea eta Uraren Euskal Agentziaren eskutik obrak jasotzea.

c) Azkenik, CAFek bulego berriak gaitzeko obrak egin eta ordainduko ditu; Agentziaren esku jarriko ditu proiektatutako obren eraginpean dauden bere jabetzako lurrak eta eraikinak.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen horretan hartutako konpromisoak betetzeko, Uraren Euskal Agentziak uholdeak prebenitzeko proiektua idazteko lanak lizitatu eta esleitu

suficientes para la suscripción de este convenio.

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para suscribir la presente MODIFICACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

EXPONEN

PRIMERO.- Que con fecha 22 de enero de 2020 la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Beasain y C.A.F. suscribieron un convenio de colaboración para la prevención de inundaciones en la cuenca del río Oria, en el término municipal de Beasain en el ARPSI ES017-GIP-14-1.

SEGUNDO.- En virtud del citado convenio las partes asumieron, entre otros, los siguientes compromisos:

a) La Agencia, aportar el proyecto, contratar, dirigir e inspeccionar técnicamente las obras incluidas en el citado proyecto y financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras.

b) El Ayuntamiento de Beasain, por su parte, promover y autorizar las actuaciones necesarias para la ejecución de las obras proyectadas, incluida la ocupación de los terrenos de titularidad municipal que sean precisos; urbanización de los terrenos afectados, etc. Asimismo, autorizar las obras de construcción y/o habilitación de las nuevas oficinas de CAF; tramitar y aprobar los documentos urbanísticos necesarios para regularizar las afecciones derivadas de las obras; otorgar las licencias y los trámites administrativos previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones; financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras y recibir las obras de la Agencia Vasca del Agua.

c) Por último, CAF a ejecutar y abonar las obras de habilitación de sus nuevas oficinas; a poner a disposición de la Agencia los terrenos y edificaciones de su propiedad afectados por las obras proyectadas.

TERCERO.- Con objeto de dar cumplimiento a los compromisos adquiridos en dicho convenio, la Agencia Vasca del Agua licitó y adjudicó los trabajos de Redacción de Proyecto de Prevención de Inundaciones en

zituen, Beasaingo udalerrian, Oria ibaiaren arroan.

Proiektua idatzi da, eta hasierako onarpena eta jendaurrean jartzea 2022ko maiatzaren 10eko EHAAn iragarri dira. Proiektu horretan aurreikusitako aurrekontua 7.090.200,13 €-koa da, hau da, indarrean dagoen hitzarmenean aurreikusitakoa baino askoz handiagoa, zehazki, 2.000.000 €.

LAUGARRENA.- Bestalde, Beasaingo Udalak komenigarritzat jotzen du Jose Miguel Iturriotz kalean egingo diren obren ondorioz sortuko den urbanizazio berriari jarraipena ematea, eta, horregatik, Jose Miguel Iturriotzen espaloia urbanizatzeko lanen proiektua idatzi da. Espaloi hori Oria ibaiaren ondotik igarotzen da, Zaldizurretako zubitik Olaran eraikinaren altueraraino, eta tarte horretan bertan hasten dira uholdeen aurka babesteko proiektuan aurreikusitako obrak. Proiektu honen aurrekontua 630.000 €-koa da.

BOSGARRENA.- Kontuan hartuta proiektuen zuinketek (obra hidraulikoak eta udal-urbanizazioko obrak) mugakide den kokapen geografikoko puntu bat dutela (lehenengoaren hegoaldeko muturrak bigarrenaren iparraldearekin egiten du muga), oinezkoen eta ibilgailuen trafikoari ahalik eta kalte gutxien eragiteko eta inguruan bizi diren bizilagunei eragozpenak ahalik eta gutxien eragiteko,
Udalak garrantzitsutzat jotzen du bi obrak aldi berean egitea eta, gainera, enpresa berari esleitzea. Horrela, bi helburu lortuko dira, eta horrek, zalantzarik gabe, interes publikoari eragingo dio:

- Kostuak optimizatzea eta, azken batean, gastuak aurreztea, bi obrei bitarteko material eta makineria berberak esleitu ahal izango baitzaizkie.
- Bi kontratista desberdinen arteko koordinazio-arazoak saihestea kanalizazioen eta hornidura-sareen instalazioan, eta zorua bi aldiz altxatu eta zigilatu behar izatea obra hidraulikoen eta udal-urbanizazioko obren elkargunean.

la cuenca del río Oria, en el término municipal de Beasain.

El proyecto ha sido redactado y su aprobación inicial e información pública ha sido anunciada en el BOPV de 10 de mayo de 2022. El presupuesto previsto en dicho proyecto asciende a 7.090.200,13 €, una cuantía muy superior a la prevista en el convenio vigente, que asciende a 2.000.000 €.

CUARTO.- Por otro lado, el Ayuntamiento de Beasain estima conveniente dar continuidad a la nueva urbanización que se generará como consecuencia de la ejecución de las obras citadas en lo que a la calle Jose Miguel Iturriotz se refiere, y por ello se ha redactado el proyecto de obras de urbanización de la acera de Jose Miguel Iturriotz que discurre junto al río Oria desde el puente de Zaldizurreta hasta la altura del edificio Olaran, así como del vial en ese mismo tramo, punto en el que se inician las obras previstas en el proyecto de defensa contra inundaciones. Este proyecto tiene un presupuesto previsto de 630.000 €.

QUINTO.- Teniendo en cuenta que los replanteos de los proyectos (obras hidráulicas y obras de urbanización municipales), tienen un punto geográfico de ubicación limítrofe (el extremo Sur de la primera linda con el punto Norte de la segunda), en aras a minimizar la afección al tráfico peatonal y rodado y las molestias a los vecinos residentes en la zona, por parte del Ayuntamiento se considera importante que la ejecución de ambas obras coincidan en el tiempo y además se adjudiquen a la misma empresa, logrando con ello un doble objetivo, que sin duda redunda en el interés público, a saber:

- Optimizar costes y en definitiva economizar gastos, al poder adscribir a las dos obras, los mismos medios materiales y maquinaria.
- Evitar problemas de coordinación entre dos contratistas diferentes en la instalación de canalizaciones y redes de suministro, así como el tener que levantar y sellar el firme por dos veces en el punto de intersección de las obras hidráulicas y obras de urbanización municipales.

SEIGARRENA.- Horregatik guztiagatik, hitzarmena sinatu duten alderdiek HITZARMENAREN ALDAKETA hau formalizatu dute, hartutako konpromisoetan ematen diren aldaketak txertatuz, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenean aurreikusitako aurrekontua eta finantzaketa eguneratzeko, eta urbanizatzeko eta uholdeak babesteko obrak batera gauzatzen laguntzeko, alderdi sinatzaile bakoitzak hartutako klausula eta konpromiso hauek aldatzea proposatzen da:

2020ko urtarrilaren 22ko hitzarmenaren BIGARREN KLAUSULAREN 1. paragrafoari c) atala gehitu zaio, gauzatu beharreko jarduketak deskribatzen dituena, eta honela idatzita geratu da:

> “c) Oria ibaiaren ondotik igarotzen den eta Zaldizurretako zubitik Olaran eraikinaren altueraraino doan Jose Miguel Iturriotz espaloia urbanizatzea, baita tarte horretako bidea ere.”

BIGARRENA.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak definitzen dituen HIRUGARREN KLAUSULAn, honako konpromiso hau gehitzen da:

> “Uholdeen aurkako defentsarako proiektuari bigarren klausulako 1. c) ataleko jarduerei buruzko proiektua eranstea, Beasaingo Udalak aurkeztuko duena.”

Gainera, honako atal hauek aldatuko dira:

> “b) Proiektuan jasotako obrak kontratatzea.
>
> d) klausula honetako obren kontratazioaren kostu efektiboaren % 50 finantzatzea eta ordaintzea, hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.”

SEXTO.- Por todo ello, las partes firmantes del convenio proceden a formalizar la presente MODIFICACIÓN DEL CONVENIO, introduciendo los cambios que se producen en los compromisos adquiridos, con arreglo a las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Con el objeto de actualizar el presupuesto y financiación prevista en el convenio, así como colaborar en la ejecución conjunta de las obras de urbanización y defensa de inundaciones, se propone modificar las siguientes cláusulas y compromisos adquiridos por cada una de las partes firmantes:

Al apartado 1 de la CLÁUSULA SEGUNDA del Convenio de 22 de enero de 2020, en la que se describen las actuaciones a ejecutar, se le incorpora un apartado c), quedando redactado como sigue:

> “c) Urbanización de la acera Jose Miguel Iturriotz que discurre junto al río Oria desde el puente Zaldizurreta hasta la altura del edificio Olaran, así como del vial en ese mismo tramo”.

SEGUNDA.- En la CLÁUSULA TERCERA, en la que se definen los compromisos de la Agencia Vasca del Agua, se añade el siguiente compromiso:

> “Incorporar al proyecto de defensa contra inundaciones el proyecto referido a las actuaciones de la cláusula segunda, apartado 1. c) que será aportado por el Ayuntamiento de Beasain”.

Además, se modificarán los siguientes apartados:

> “b) Contratar las obras incluidas en dicho proyecto.
>
> d) Financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en esta cláusula, en los términos previstos en el convenio.”

Beraz, hirugarren klausula osoa honela idatzita geratzen da:

"HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Eraikinen eraispena eta obra hidraulikoak jasotzen dituen proiektua egitea, bigarren klausularen 1a) apartatuan aipatutako edukia eta irismena izango dituena. Proiektuaren edukia helburu hidraulikoetara egokituko da. Ahal den heinean, kontuan izango dira udalerriak eta CAFek ingurune horretan dituzten hirigintza premiak.

b) Uholdeen aurkako defentsarako proiektuari bigarren klausulako 1. c) ataleko jarduerei buruzko proiektua eranstea, Beasaingo Udalak aurkeztuko duena.

c) Proiektu horretan sartutako obrak kontratatzea, urbanizazio-obrak barne.

d) Aipatutako obrak zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea.

e) Klausula honetan jasotako obren kontratazioaren benetako kostua finantzatu eta ordaintzea, gehienez ere SEI MILIOI LAUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN EURO ETA HAMAIRU ZENTIMO (6.090.200,13 €) arte. Zenbateko horretatik 2022rako MILIOI BAT EURO (1.000.000,00 €) erakundearen 2022rako ordainketa-kreditu bati dagozkio; LAU MILIOI LAUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN EURO ETA HAMAIRU ZENTIMO (4.090.200,13 €) 2023rako konpromiso-kreditu bati dagozkio eta MILIOI BAT EURO (1.000.000,00 €) 2024rako konpromiso-kreditu bati dagozkio."

<u>HIRUGARRENA</u>.- Beasaingo Udalaren konpromisoak definitzen dituen LAUGARREN KLAUSULAN honako konpromiso hau gehituko da:

"Oria ibaiaren ondotik igarotzen den eta Zaldizurretako zubitik Olaran eraikinaren

Por tanto, la cláusula tercera completa, queda redactada como sigue:

"TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Aportar el proyecto que incluya tanto al derribo de los edificios como las obras hidráulicas, con el contenido y el alcance mencionados en el apartado 1a) de la anterior cláusula segunda. El contenido del proyecto se adecuará a los objetivos hidráulicos. Se atenderá en la medida de lo posible a las necesidades urbanísticas del municipio y CAF en ese entorno.

b) Incorporar al proyecto de defensa contra inundaciones el proyecto referido a las actuaciones de la cláusula segunda, apartado 1.c) que será aportado por el Ayuntamiento de Beasain.

c) Contratar las obras incluidas en dicho proyecto, incluidas las de urbanización.

d) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

e) Financiar y abonar el coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en esta cláusula, hasta un importe máximo de SEIS MILLONES NOVENTA MIL DOSCIENTOS EUROS CON TRECE CÉNTIMOS (6.090.200,13 €), correspondientes a un crédito de pago para 2022 de UN MILLÓN DE EUROS (1.000.000,00 €), un crédito de compromiso para 2023 de CUATRO MILLONES NOVENTA MIL DOSCIENTOS EUROS CON TRECE CÉNTIMOS (4.090.200,13 €) y un crédito de compromiso para 2024 de UN MILLÓN DE EUROS (1.000.000,00 €)."

TERCERA.- En la CLÁUSULA CUARTA, en la que se definen los compromisos del Ayuntamiento de Beasain, se añadirá el siguiente compromiso:

"Aportar el proyecto de urbanización de la acera Jose Miguel Iturriotz que discurre

altueraraino doan Jose Miguel Iturriotz espaloiaren urbanizazio-proiektua aurkeztea, bai eta tarte horretako bidearen urbanizazio-proiektua ere."

junto al río Oria desde el puente Zaldizurreta hasta la altura del edificio Olaran, así como del vial en ese mismo tramo."

Gainera, honako atal hauek aldatuko dira:

Además, se modificarán los siguientes apartados:

"e) 3 a) klausulan jasotako obren kontratazioaren kostu efektiboaren % 50 inantzatza eta ordaintzea, hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.

Beasaingo Udalak gehienez zenbateko hauek ordaintzeko konpromisoa hartzen du, horrek ez du eragozten zazpigarren klausulan ezarritakoaren arabera kopurua hazi ahal izatea: MILIOI BAT (1.000.000) EURO, MILA (1.000) EUROKO 2019rako ordainketa kreditu bati dagokiona, EHUN MILA (100.000) EUROKO konpromiso kreditu bat 2020rako eta ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA (899.000) EUROKO konpromiso kreditu bat 2021erako, Udalaren aurrekontuaren kontura finantzatuko direnak.

f) Ziurtatzea obren % 50 finantzatzeko behar den kreditua dagoela eta erabilgarri dagoela."

"e) Financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en la cláusula 3 a), en los términos previstos en el convenio.

El importe máximo que compromete el Ayuntamiento de Beasain, sin perjuicio de que pueda incrementarse de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula séptima, es de UN MILLÓN (1.000.000) DE EUROS correspondientes a un crédito de pago para 2019 de MIL (1.000) EUROS, un crédito de compromiso para 2020 de CIEN MIL (100.000) EUROS y un crédito de compromiso para 2021 de OCHOCIENTOS NOVENTA Y NUEVE MIL (899.000) EUROS, que se financiarán con cargo al presupuesto del Ayuntamiento de Beasain.

f) Certificar la existencia y la disposición del crédito preciso para financiar el 50% de las obras."

Beraz, laugarren klausula osoa honela idatzita geratzen da:

Por tanto, la cláusula cuarta completa, queda redactada como sigue:

"LAUGARRENA.- BEASAINGO UDALAREN KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Proiektatutako obra hidraulikoak gauzatzeko behar diren jarduketak sustatzea eta baimentzea, baita hauekin guztiekin erlazionatutakoak ere: udalaren titulartasuneko lurrak okupatzea, baldin eta obra horiek gauzatzeko behar badira; eragindako lurrak urbanizatzea , etab.

b) CAF en bulego berriak eraikitzeko/egokitzeko obrak baimentzea.

"CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN.

El Ayuntamiento de Beasain se compromete a:

a) Promoción y autorización de las actuaciones necesarias para la ejecución de las obras hidráulicas proyectadas, incluidas las relacionadas con las siguientes: ocupación de terrenos de titularidad municipal que, en su caso, requiera la ejecución de dichas obras; urbanización de los terrenos afectados; etc.

b) Autorización de las obras de construcción y/o habilitación de las nuevas oficinas de CAF.

c) Hirigintzako (antolamenduko eta kudeaketako) dokumentuak tramitatzea eta onestea baldin eta dokumentu horiek egokiak badira CAFen lurretan eta jabetzatan aurreikusitako obra hidraulikoen eraginak erregularitzatzekoo, baita honetarako beharrezkoak direnak ere:

- Eraitsi beharreko eraikinen gaur egungo raíkígarritasuna finkatzea, horrek ez du eragozten eraikin horiek beste kokaleku batzuetara eramatea.

- Eraikigarritasun hori handitzea eraitsi beharreko eraikinen galera konpentsatzeko, baita enpresak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen premiei erantzuteko ere; etab. Handitze hori HAPOn gauzatuko da, gaur egun idazten ari direna edo arau subsidiarioak zehazki aldatuta.

Helburu horretarako egin beharreko dokumentuak Udalak eta CAFek akordioz zehaztuko dituzte. Bi alderdiek zehazten duten unean egin eta tramitatuko dira eta, kasu guztietan, CAFen premiei erantzuteko behar besteko aurrerapenarekin.

d) Lizentziak, baimenak ematea-baita beharrezkoak badira hidraulikoak ere- eta hitzarmenaren xede diren jarduketak .kontratatzeko eta gauzatzeko aurretiazkoak eta beharrezkoak diren ez kontratuzko gainerako tramite administratiboak.

e) Oria ibaiaren ondotik igarotzen den eta Zaldizurretako zubitik Olaran eraikinaren altueraraino doan Jose Miguel Iturriotz espaloiaren urbanizazio-proiektua aurkeztea, bai eta tarte horretako bidearen urbanizazio-proiektua ere

f) Uholdeen aurkako babes-obrak finantzatu eta ordaintzea, MILIOI BAT EUROko gehienezko zenbatekoarekin (1.000.000,00 €), bai eta SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA EUROko (630.000,00 €) aurrekontuarekin sartutako urbanizazio-obren benetako kostua ere. Beraz, Beasaingo Udalak konprometitzen duen finantzaketa osoa MILIOI BAT

c) Tramitación y aprobación de los documentos urbanísticos (de ordenación y gestión), que se estimen adecuados para regularizar las afecciones derivadas de las obras hidráulicas previstas en los terrenos y propiedades de C.A.F., incluidos los necesarios para:

- Consolidar la edificabilidad actual de las edificaciones a derribar, sin perjuicio de su traslado a otros emplazamientos.

- Incrementar esa edificabilidad en los términos necesarios para compensar la pérdida de las edificaciones a derribar, así como para dar respuesta a las necesidades presentes y futuras de la empresa; etc. Dicho incremento se materializará en el PGOU, actualmente en redacción o mediante una modificación puntual de NN SS.

Los documentos a elaborar con ese fin serán determinados de común acuerdo por el Ayuntamiento y C.A.F. Serán elaborados y tramitados en el momento en el que ambas partes lo determinen y, en todo caso, con la suficiente antelación para dar respuesta a las necesidades de C.A.F.

d) Otorgar las licencias, autorizaciones incluidas de ser necesario las hidráulicas y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio.

e) Aportar el proyecto de urbanización de la acera Jose Miguel Iturriotz que discurre junto al río Oria desde el puente Zaldizurreta hasta la altura del edificio Olaran, así como del vial en ese mismo tramo.

f) Financiar y abonar las obras de defensa contra inundaciones hasta un importe máximo de UN MILLÓN DE EUROS (1.000.000,00 €), así como el coste efectivo total de las obras de urbanización incorporadas con un presupuesto de SEISCIENTOS TREINTAMIL EUROS (630.000,00 €). Por lo tanto, el compromiso de financiación total que

SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA EUROkoa da (1.630.000,00 €).

adquiere el Ayuntamiento de Beasain asciende a UN MILLÓN SEISCIENTOS TREINTAMIL EUROS (1.630.000,00 €).

g) Aurreko atalean adierazitako kopurua finantzatzeko beharrezkoa den kreditua badagoela ziurtatzea.

g) Certificar la existencia y la disposición de crédito preciso para financiar la cantidad indicada en el apartado anterior.

h) Uraren Euskal Agentziatik hartzea horrek gauzatutako obrak, amaitutakoan eta Agentziatik hartutakoan Beasaingo Udalak era egokian kudeatu eta mantendu beharko ditu, eta konpromisoa hartzen du aurrekontu aurreikuspenak egiteko eta helburu horretarako behar diren gainerako neurriak hartzeko.

h) Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras ejecutadas por ésta, una vez terminadas y recibidas por ella, obligándose el Ayuntamiento de Beasain, a su gestión y mantenimiento adecuado, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

Testuinguru horretan, gaur egungo zubia ordeztuko duen zubi berriaren titulartasuna Beasaingo Udalarena izango da, eta zubiaren mantentzea erakunde horrek eta CAFek gai horri buruz adosten dituzten irizpideetara egokituko da.

En ese contexto, la titularidad del nuevo puente previsto en sustitución del actual corresponderá al Ayuntamiento de Beasain, y su mantenimiento se adecuará a los criterios que a ese respecto acuerden dicha entidad y C.A.F.

i) Mantentze eta garbiketa lanak egitea aldian behin, betiere egokiak izango direnak entregatuko diren azpiegitura hidraulikoen urak husteko gaitasuna kontserbatzeko.”

i) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas que se entregan.”

LAUGARRENA.- Aldaketa honen aurka ez doazen 2020ko urtarrilaren 22ko lankidetza-hitzarmeneko klausula guztiak osotasunean mantenduko dira indarrean.

CUARTA.- En tanto no contravenga lo dispuesto en la presente modificación continuará siendo de total aplicación el clausulado del convenio de 22 de enero de 2020.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

b.- BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSTOKIAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA EMATEA. 2022HIBO0115

B.- ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE TERRAZAS, EXPOSITORES DE PRODUCTOS EN VENTA Y OTROS ELEMENTOS AUXILIARES. APROBACIÓN INICIAL.

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko ondorengo proposamena:

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Territorio:

*“AURREKARIAK*

*1.- 2022-05-06. Udalaren web orrian argitaratzen da araudia egin aurreko kontsulta, herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko, 2022-05-27arte.*

*2.- Aipatutako epealdi horretan sei iradokizun aurkeztu dira eta beraiekiko 2022-06-20an, Lurralde arloko koordinatzaileak honekin batera doan txostena eman du, aurkeztutako iradokizunak deuseztatuz:*

*Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari iradokizunen erantzuna*

1. *I. Saratxagak egindako iradokizunen idatziaren lehen puntua eta bakarra azaltzea. Hauxe dio:*

   *“Ostalariak garen aldetik, terrazetarako bi tarifa izatea gustatuko litzaiguke. Bata negukoa eta bestea udakoa. klimatologia dela eta neguan ez baita udan adina mahai erabiltzen”*

*Proposatutako ordenantzak establezimendua kokatuta dagoen bidearen ezaugarrien arabera terrazak instalatzeko gehieneko okupazio baldintzak eta baimendutako gehieneko mahai kopurua ezartzen du. Ez da aurreikusten bi tarifa edo aldi baterako ezartzea. Izan ere, gehieneko okupazio-azalerak ezin dira aldatu, bide publikoan terraza-elementu gehiegi pilatzea ekar dezake elementuen zati bat instalatzen ez den hilabeteetan, eta udalak terraza-elementuak kontrolatzea eta kudeatzea zailtzen du.*

*Lehen esandako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.*

2. *Nafarroa Etorbidea 4ko jabekideen erkidegoak egindako iradokizunen idatziaren lehenengo puntua azaltzea. Puntu horretan honako hau adierazten da:*

   *“ostalaritza-lokalek beren espazio pribatuaren barruan (leihoetan, etab.) instalatzen dituzten barrek eta gainerako elementuek, espazio publikoko mugikortasunari zuzenean eragiten badiote, araudian jasotako zabalera eta distantzia-kanon berberak bete behar badituzte. Are gehiago atarietan”.*

“AURREKARIAK

***1.-*** *06-05-2022. Se publica en la página web del Ayuntamiento la consulta previa a la elaboración de normativa con el fin de presentación de sugerencias por parte de la ciudadanía, hasta el 27-05-2022.*

***2.-*** *En ese intervalo de tiempo se presentan seis sugerencias, respecto de las cuales el coordinador del área de Territorio con fecha 20-06-2022 emite el informe proponiendo desestimar las sugerencias presentadas.*

*Respuesta a las sugerencias a la Ordenanza Reguladora de la Instalación en la vía Pública de Terrazas, expositores de productos en venta y otros elementos auxiliares*

1. *Exposición del punto primero y único del escrito de sugerencias realizado por I. Saratxaga donde se afirma que:*
   *“Como hosteleros, nos interesaría poder contar con dos tarifas para las terrazas. Una de invierno y otra de verano. Ya que en invierno no se hace uso de tantas mesas como en verano, debido a la climatología”*

*La ordenanza propuesta establece las condiciones de ocupación máxima para la instalación de terrazas en función de las características de la vía en la que se ubica el establecimiento y por consiguiente el número de mesas máximo autorizable. No se prevé la inclusión de dos tarifas o temporalidades, ya que las superficies de ocupación máxima no son modificables, puede suponer un exceso de apilamiento de elementos de terrazas en la vía pública durante los meses en los que no se instale parte de los elementos y dificulta el control y gestión de los elementos de terrazas por parte del ayuntamiento.*

*Por los motivos anteriormente expuestos se desestima la solicitud.*

2. *Exposición del punto primero del escrito de sugerencias realizado por la comunidad de propietarios de Nafarroa Etorbidea 4 donde se afirma que:*

*“Que las barras y demás elementos que instalen los locales hosteleros dentro de su especio privado (en ventanas etc.) pero que afecten directamente a la movilidad en espacio público, tengan que cumplir con los mismos cánones de anchuras y distancias contemplados en la normativa. Más aún en los portales”.*

*Proposatutako ordenantzak une oro, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan ezarritako zehaztapenak hartzen ditu kontuan. Dekretu horren bidez, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio-sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira, terrazetako instalazioen gehieneko okupazioak mugatzeko eta bide publikoko igarobideak eta atari eta lokaletarako igarobideak ez oztopatzeko. Era berean, proposatutako ordenantzak ez du kanpoko barrak instalatzeko baimenik ematen, lehen aipatutako arrazoiengatik.*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen ordenantzan sartuta dagoela ulertzen delako.*

**3.** *Nafarroa Etorbidea 4ko jabekideen erkidegoak egindako iradokizunen idatziaren lehenengo puntua azaltzea. Puntu horretan honako hau adierazten da:*

*"Mahaiak jartzerakoan espaloietan geratzen den gutxieneko zabalera kontuan hartzea, eguzkitakoa ireki eta okupatutako aulkiekin neurtzea. Eguzkitakoak mahaiak berak bezainbeste mugatzen baitu benetan igarotzea".*

*Ordenantzaren 10. artikuluaren arabera, eguzkitakoak ezin izango dute 4 m2-tik gorako azalera eta 2,20 m2-tik beherako altuera izan. Nabarmentzekoa da altueraren muga apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak ezartzen duela, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, hain zuzen ere, elementuen azpiko zirkulazioa ez oztopatzeko. Nolanahi ere, eguzkitakoetarako ezarritako 4 m2-ko gehieneko azalera bat dator mahai eta 4 aulkiko multzo bakoitzerako kontuan hartutako gehieneko azalerarekin; beraz, bi elementuek azalera bera hartuko dute.*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen ordenantzan sartuta dagoela ulertzen delako.*

**4.** *Nafarroa Etorbidea 4ko jabekideen erkidegoak egindako iradokizunen idatziaren hirugarren puntua azaltzea. Puntu horretan honako hau adierazten da:*

*La ordenanza propuesta tiene en todo momento en consideración las determinaciones establecidas en el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, con fin de limitar las ocupaciones de máximas de las instalaciones de las terrazas y no interferir con las zonas de tránsito de la vía pública y zonas de paso a portales y locales. A su vez, la ordenanza propuesta no autoriza la instalación de barras exteriores por lo motivos mencionados anteriormente.*

*Por los motivos anteriormente expuestos se desestima la solicitud por entenderse incluida en la redacción de la ordenanza.*

**3.** *Exposición del punto segundo del escrito de sugerencias realizado por la comunidad de propietarios de Nafarroa Etorbidea 4 donde se afirma que:*

*"Que la anchura mínima restante en aceras a la hora de colocar mesas, se tenga en cuenta y se mida una vez la sombrilla esté abierta y las sillas ocupadas, ya que es la sombrilla la que limita el realmente el paso tanto como la propia mesa".*

*Atendiendo al artículo 10 de la ordenanza, se establece que las sombrillas no podrán tener una superficie mayor a 4 m2 y una altura inferior a 2,20 m2. Cabe destacar que la limitación de la altura viene determinada por el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, precisamente para no entorpecer el tránsito bajo los elementos. En cualquier caso, el área de 4m2 de superficie máxima establecida para las sombrillas coincide con la superficie máxima considerada para cada conjunto de 1 mesa y 4 sillas, ocupando ambos elementos por lo tanto la misma superficie.*

*Por los motivos anteriormente expuestos se desestima la solicitud por entenderse incluida en la redacción de la ordenanza*

**4.** *Exposición del punto tercero del escrito de sugerencias realizado por la comunidad de propietarios de Nafarroa Etorbidea 4 donde se afirma que:*

*“Lokaletako kontsumitzaileek zutik kontsumitzean atarietarako sarbidea ez oztopatzea”.*

*Ordenantza-proposamenak helburu bakarra du: bide publikoan terrazak eta salgai dauden produktuen erakustokiak jartzeko irizpideak ezartzea, atarietarako sarbidea bermatzeko beharrezko neurriak kontuan hartuta. Hala ere, ordenantzaren eskumenekoak ez dira bide publikoan edariak kontsumitzeari buruzko gaiak eta antzekoak arautzea.*

*Beraz, ordenantza honen xedea ez delako eskaera ez da onartzen.*

5. *Nafarroa Etorbidea 4ko jabekideen erkidegoak egindako iradokizunen idatziaren hirugarren puntua azaltzea. Puntu horretan honako hau adierazten da:*

*“Araudian jasotzen den ez bezala, irisgarritasunean eta mugikortasunean eragin larria duten elementu guztiak kentzea eskatu ahal izatea, elementu horiek hondatu arte itxaron gabe. Hondatu arte erabili ahal izateak pikarokeria eragin dezake, eta konponketak egin daitezke (olana ordeztea, etab.), kendu ez dadin”.*

*Ez indarrean dagoen ordenantzak, ez proposatutako ordenantza berriak, ez dute baimentzen espazio publikoko irisgarritasunean eta mugikortasunean eragin larria duten elementurik. Nafarroa Etorbidea 4ko jabekideen erkidegoaren idazkian aurkeztutako kexa kontuan hartuta, ordenantza honen xedea ez denez, Beasaingo Udaleko zerbitzu teknikoek erantzungo dute.*

*Beraz, ordenantza honen xedea ez delako eskaera ez da onartzen.*

6. *A. Berasategik egindako iradokizunen idatziaren lehen puntua eta bakarra azaltzea. Hauxe dio:*

*“EAE-ko 213/2012 Dekretuak zarata mugak zehazten dituen hiru denbora-eremu bereizten ditu, egunekoa(07:00-19:00), iluntzekoa(19:00-23:00) eta gauekoa(23:00-07:00). Aipaturiko dekretuaren I.eranskineko 1.taularen arabera, bizitegi erabilerako lurzoruetan zarata muga 55dBA-koa izango da gaueko denbora-eremuan. Badakigu guztiok, ongi jakin ere, terrazek zarata muga hau aise gainditzen dutela. Ordenantza berriko 18.artikuluan zehazten den ordutegiak*

*“Que los consumidores de los locales no puedan invadir, consumiendo de pie, el acceso a los portales”.*

*La propuesta de ordenanza tiene como único fin establecer los criterios para de para instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos en venta, donde sí se tienen en consideración las medidas necesarias para garantizar el acceso a los portales. No obstante, no son competencia de la ordenanza la regulación de cuestiones relativas al consumo de bebidas en la vía pública y similares.*
*Por lo tanto, se desestima la solicitud por no ser objeto de la presente ordenanza.*

5. *Exposición del punto cuarto del escrito de sugerencias realizado por la comunidad de propietarios de Nafarroa Etorbidea 4 donde se afirma que:*

*“Que pueda exigirse la retirada de todos aquellos elementos existentes en la actualidad que afecten de forma grave la accesibilidad y movilidad, sin esperar a que se deterioren, a diferencia de lo que contempla la normativa. El hecho de permitir su uso hasta su deterioro, puede dar lugar a la picaresca, con posibles reparaciones (sustitución de lona etc.) para evitar su retirada”.*

*Ni la actual ordenanza en vigor ni la nueva ordenanza propuesta, autorizan elementos que afecten de forma grave a la accesibilidad y movilidad en el espacio público. Atendiendo a la queja planteada en el escrito de la comunidad de propietarios de Nafarroa Etorbidea 4, no siendo objeto de la presente ordenanza, se atenderá desde los servicios técnicos del ayuntamiento de Beasain.*

*Por lo tanto, se desestima la solicitud por no ser objeto de la presente ordenanza.*

5. *Exposición del punto primero y único del escrito de sugerencias realizado por A. Berasategi donde se afirma que:*

*“El Decreto 213/2012 por el que se establecen los límites de ruido en la CAPV distingue tres zonas de tiempo diurno (07: 00-19: 00), anochecer (19: 00-23: 00) y nocturno (23: 00-07: 00). De acuerdo con la Tabla 1 del Anexo I del citado Decreto, el límite de ruido en suelos de uso residencial será de 55dBA en el ámbito temporal nocturno. Todos sabemos que las terrazas superan con creces este límite de ruido. En todos los casos en los que*

*itxiera gaueko 23:00-etatik haratago baimentzen duen kasu guztietan EAE-ko 213/2012 Dekretua urratzen du. Legea betearaztea eta bizilagunen atseden eskubidea bermatzea udalaren ardura da."*

*el horario establecido en el artículo 18 de la nueva ordenanza permite el cierre más allá de las 23:00 horas, incumple el Decreto 213/2012 de la CAPV. Hacer cumplir la ley y garantizar el derecho de descanso de los vecinos es responsabilidad del ayuntamiento".*

*Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak honako hau ezartzen du II. eranskineko I. zatiko 1. artikuluan (ebaluatzeko denbora-tarteak):*

*"a) Eguneko hiru ebaluazio-aldi hauek ezartzen dira:*
*1) Eguneko aldia (d): eguneko aldiari 12 ordu dagozkio.*
*2) Arratsaldea (e): arratsaldeari 4 ordu dagozkio.*
*3) Gaua (n): gauari 8 ordu dagozkio.*
*b) Honako hauek dira ebaluazio-aldi bakoitzaren hasierako eta amaierako ordutegi-balioak: eguneko aldia 07: 00etatik 19: 00etara; arratsaldeko aldia 19: 00etatik 23: 00etara; eta gaueko aldia 23: 00etatik 07: 00etara, tokiko ordua."*

*El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el artículo 1 "periodos temporales de evaluación" del Anexo II parte I, establece lo siguiente:*

***"a)*** *Se establecen los tres periodos temporales de evaluación diarios siguientes:*
*1) Periodo día (d): al periodo día le corresponden 12 horas.*
*2) Periodo tarde (e): al periodo tarde le corresponden 4 horas.*
*3) Periodo noche (n): al periodo noche le corresponden 8 horas.*
*b) Los valores horarios de comienzo y fin de los distintos periodos temporales de evaluación son: periodo día de 07:00 a 19:00; periodo tarde de 19:00 a 23:00 y periodo noche de 23:00 a 07:00, hora local".*

*Bestalde, I. eranskineko 1. zatiko "kalitate akustikoko helburuetako" 1. zatian zarata-indize hauek ezartzen dira bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi den lurraldeko eremu/sektoreetarako: 65dBA eguneko eta arratsaldeko aldietan eta 55dBA gaueko aldian, hau da, 23: 00etatik aurrera.*

*Por otra parte, la tabla A "objetivos de calidad acústica para ruido aplicables a áreas urbanizadas existentes" del Anexo I, parte 1 "objetivos de calidad acústica" establece los siguientes índices de ruido para ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial: 65dBA en los periodos de día y de tarde y 55dBA en el nocturno, es decir a partir de las 23:00 horas.*

*Ildo horretan, azpimarratu behar da A taulak ez duela zarataren muga-baliorik ezartzen, baizik eta lehendik dauden area urbanizatuetan aplika daitezkeen zarataren kalitate akustikoko helburuak ezartzen dituela.*

*En este sentido, cabe destacar que la tabla A no establece valores límite de inmisión de ruido, si no que establece objetivos de calidad acústica para ruido aplicables a áreas urbanizadas existentes.*

*Hala ere, proposatutako ordenantzaren 20. artikuluak ezartzen duenez, "instalazioaren titularrak zaindu egingo du gainerako bizilagunen lasaitasunerako eskubidea errespetatzen dela, eta, beraz, ez du onartuko eskandalurik, liskarrik eta/edo zaratarik oro har instalazioan, arreta berezia jarrita 23: 00etatik aurrera".*

*No obstante, el artículo 20 de la ordenanza propuesta "obligaciones de la persona titular de la instalación" establece que "la persona titular de la instalación velará por que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario, por lo que no permitirá escándalos, riñas y/o ruidos en general en la instalación, con especial atención a partir de las 23 horas".*

*Era berean, azpimarratu behar da ordenantzak terrazen itxiera ordutegi hau proposatzen duela:*

*Ixteko ordutegi orokorra: 23: 00etan.*
*Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 01: 00etan.*
*Ekainaren 1etik irailaren 30era: 24: 00etan.*
*Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 02: 00etan.*

*Del mismo modo, cabe destacar que la ordenanza propone el siguiente horario de cierre para las terrazas:*

*Horario general de cierre: 23:00 horas.*
*Los viernes, sábados y víspera de festivos: 01:00 horas.*
*Del 1 de junio al 30 de septiembre: 24:00 horas.*

*Azkenik, egindako iradokizunak ziurtzat jotzen du terraza guztietan gaindituko dela Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak gau-zerrendan ezarritako kalitate akustikoko helburua, inolako daturik edo ebidentziarik ez duen ustea.*

*Los viernes, sábados y víspera de festivos: 02:00 horas.*

*Por último, la sugerencia realizada da por hecho que en todas las terrazas se superará el objetivo de calidad acústica establecido por El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la franja de noche, presunción que no acompaña dato o evidencia alguna.*

*Beraz, eskaera ez da onartzen.*

*Por lo tanto, se desestima la solicitud realizada.*

OINARRI JURIDIKOAK

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 4.1, 20.1 c), 47.1, 49 eta 52.2 106, 107,111 eta 113.

- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua: 82.2, 123. eta 126. artikuluak.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 80,82, 83, 129 eta 133. artikuluak.

*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*

- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local: arts. 4.1, 20.1 c), 47.1, 49 y 52.2 106, 107,111 y 113.

- Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre: arts., 82.2º 123 y 126

- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: arts 80,82, 83, 129 y 133.

*Horren ondorioz, Lurralde batzordeak proposatuta, Udalbatza Osoari ondorengoa*

*ERABAKI DU*

*Lehenik. Aurkeztutako iradokizunak ebaztea osotasunean deuseztatuz.*

*Bigarren. Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena ematea.*

*Hirugarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua eta adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkezten, Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza behin-betiko onartua geratuko dela.”*

*A propuesta de la Comisión de Territorio el Pleno del Ayuntamiento, adopta el siguiente*

*ACUERDO*

*Primero. Resolver las sugerencias presentadas, desestimándolas en su totalidad.*

*Segundo. Aprobar inicialmente la Ordenanza Reguladora de la Instalación en la vía Pública de Terrazas, expositores de productos en venta y otros elementos auxiliares.*

*Tercero.- Información pública por un plazo de 30 días hábiles, mediante anuncio publicado en el BOG, indicando que si en dicho plazo no se presenta alegación o reclamación alguna, quedará definitivamente aprobada la Ordenanza Reguladora de la Instalación en la vía Pública de Terrazas, expositores de productos en venta y otros elementos auxiliares .”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones se exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos a favor. Se recogen cuestiones lógicas. Pedimos que se efectúe mayor control, aunque sabemos que es dificil.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ados gaude. Eskertzekoa da teknikoek egindako ahalegina gure proposamenak txertatzeko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): estamos de acuerdo. Es de agradecer el esfuerzo de los técnicos para incorporar nuestras propuestas.”

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez hasierako onespena eman zaio ondorengo ordenantzari

En consecuencia tras realizar la votación se aprueba inicialmente la siguiente ordenanza:

“BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSTOKIAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

“ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE TERRAZAS, EXPOSITORES DE PRODUCTOS EN VENTA Y OTROS ELEMENTOS AUXILIARES

I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

TÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

1. Artikulua. Aplikazio-araudia.
Honako udal ordenantza 1985eko Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. eta 85. artikuluek, 1986ko Udalbatzen Ondasunen Araudiaren 77. artikuluak, Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41. artikuluak eta 1955eko Udalbatzen Zerbitzuen Araubidearen 1etik 17rako artikuluek xedatutako ahalmenen arabera eratu da.

Artículo 1. Normativa de aplicación.
La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades otorgadas por los artículos 49 y 85 de la Ley de Bases del Régimen Local de 1985, artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales de 1986, artículo 41 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales de 1986 y artículos 1 a 17 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales de 1955.

2. artikulua. Xedea.
Ordenantza honen helburua bide publikoan honako hauek jartzeko araubide tekniko eta juridikoa zehaztea da:

1. Terrazak eta elementu osagarriak.
2. Salgai dauden produktuen erakustokiak.

Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira terrazak eta horien elementu osagarriak, eta baita salmenta-produktuen erakustokiak ere, baldin eta elementu horien instalazioa asteko azokaren, azoka berezien eta antzeko beste edozein jarduera/ekitaldiren ondorio bada.

Artículo 2. Objeto.
Es objeto de la presente ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación sobre la vía pública de:

1. Terrazas y elementos auxiliares.
2. Expositores de productos en venta.

Quedan excluidas de la aplicación de la presente Ordenanza la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares, y expositores de productos de venta, cuya instalación derive de la celebración de la feria semanal, ferias especiales y cualesquiera de otras actividades/eventos de análoga naturaleza.

3. artikulua. Definizioa.

Artículo 3. Definición.

Terrazatzat joko dira udal-baimena duten ostalaritzaren alorreko jarduera baten osagarri diren mahaiak, mahai altuak, aulkiak, eguzkitako itzalkiak, fatxadako toldoak, toldo mugikorrak, alboko toldoak, berogailuak eta behin-behineko instalazio mugikorren multzoak, batera edo banaka jarrita eta modu iraunkorrean.

Salgai dauden produktuen erakustokitzat joko dira saltzeko produktuak erakustea helburu duten behin-behineko instalazio mugikorrak, batera edo banaka jarrita eta modu iraunkorrean; produktu horiek jarduera gauzatzeko udal-baimena duen merkataritza-establezimendu batek jarritakoak izan behar dute.

Terraza baten parte izan daitezkeen elementu baimenduak honakoak dira:

- Mahaiak eta aulkiak
- Mahai eta aulki altuak
- Establezimenduaren fatxadan ainguratutako toldoa
- Toldo mugikorra
- Alboko toldoa
- Berogailuak

Ordenantza honen 10. artikuluak baimendutako terraza-elementu bakoitzaren ezaugarriak zehazten ditu. Kupelak eta kanpoko barrak ez dira baimenduko.

4. artikulua. Aldez aurreko lizentzia lortzeko beharra.

Aipaturiko bide publikoko instalazioek erabilera komun bereziko kategoria juridikoa dute eta, kasu bakoitzean, aldez aurreko udal baimena behar dute, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango dena.

II. TITULUA

TERRAZAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEA

5. artikulua. Instalazioa zilegi den espazioen izaera

Terrazak jartzeko baimena jabari publikoko edo erabilera publikorako eremuetarako eman ahal izango da.

Ordenantza hau, titulartasun publikoko zein pribatuko udalerriko erabilera publikoko espazio

Se entienden por terrazas el conjunto de mesas, mesas altas, sillas, sombrillas, toldos de fachada, toldos móviles, toldos laterales y calefactores que, conjunta o individualmente y de forma permanente, sirven de complemento a una actividad del tramo de hostelería que disponga de autorización municipal para el ejercicio de la actividad principal.

Se entiende por expositores de productos en venta aquellas instalaciones provisionales móviles que conjunta o individualmente y de forma permanente tienen como destino exponer productos destinados a la venta por parte de un establecimiento comercial que disponga de autorización municipal para el ejercicio de la actividad.

Elementos autorizables que pueden formar parte de una terraza:

- Mesas y sillas
- Mesas altas y sillas
- Toldo anclado a fachada del establecimiento
- Toldo móvil
- Toldo lateral
- Calefactores

El artículo 10 de la presente Ordenanza establece las características de cada uno de los elementos de terraza autorizables. Los barriles y las barras exteriores no serán autorizables.

Artículo 4. Necesidad de obtención de previa licencia.

Las citadas instalaciones de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.

TÍTULO II

INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE TERRAZAS

Artículo 5. Carácter de los espacios en que se posibilita la instalación.

Se podrá conceder licencia para la instalación de terrazas en aquellos espacios que tengan carácter de bienes de dominio público o uso público.

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que siendo de uso

guztietan (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.) aplikagarria izango da. Erabilera publikoko baldintza hori egitatezko egoeraren arabera eta indarrean dagoen hirigintza-plangintzako zehaztapenen aplikazioaren arabera zehaztuko da.

6. artikulua. Baimenak ukatzeko arrazoiak.
Alkatetzak aukera izango du terrazak eta elementu osagarriak jartzeko baimena ez emateko, interes publikoaren mesedetan, trazatua eta kokapena direla eta, inguruko etxebizitzak 2,5 metrotik beherakoak izatean edo 3 metrora baino gutxiagora egotean, bide-segurtasun arrazoiengatik, herri-lanak, establezimendu-dentsitate handia dagoelako, nahiz hiri-paisaia edo interes publikoari eragiten dioten eta behar bezala oinarrituta dauden beste arrazoi batzuengatik.
2,5 metrotik beherako altuera, terraza jarri nahi den sestratik hasi eta establezimendutik hurbilen dagoen etxebizitzaren sestraraino neurtuko da.

Terrazaren eta etxebizitzaren sestra berdina denean edo 2,5 metrotik beherako altueran dagoenean, 3 metroko distantzia hartuko da kontuan.

7. artikulua. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan jarritakoak.

1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu establezimenduaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik ondoko fatxadak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako ondoko fatxadako establezimenduen idatzizko adostasuna beharko da.
2. Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoen joan-etorrietarako eta etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.
3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri ondoan kokatu behar da eta oinezkoentzako pasabidea fatxada ondoan utzita.
4. Segurtasun arrazoiak direla eta terraza zintarri ondoan kokatu beharra badago zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira.
5. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-

público, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

Artículo 6. Motivos de denegación de la licencia.
La alcaldía podrá no autorizar la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón del trazado, situación, existencia de viviendas a una altura inferior a 2,5 metros o a una distancia inferior a 3 metros, seguridad viaria, obras públicas, densidad de establecimientos, paisaje urbano o cualesquiera otras circunstancias debidamente motivadas que afecten al interés público.

La altura inferior de 2,5 metros se medirá desde la rasante donde se pretenda la instalación de la terraza hasta la rasante de la vivienda más próxima al establecimiento.
La distancia inferior a 3 metros se considerará en aquellos supuestos en los que la rasante de la terraza y de la vivienda sea la misma o se encuentre a una altura inferior a 2,5m.

Artículo 7. Instalaciones en aceras de calles con circulación rodada.

1. El emplazamiento de las terrazas no podrá sobrepasar la longitud de la fachada del edificio en el que está situado el establecimiento, salvo que por razones de espacio se solicite la ocupación de fachadas contiguas, en cuyo caso deberán contar con la conformidad acreditada por escrito de los establecimientos contiguos.
2. En todos los casos se deberá garantizar un paso mínimo de 2 metros considerando el mobiliario público existente para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales.
3. En función de la densidad peatonal u otras razones el emplazamiento de la terraza se situará junto al bordillo permitiendo el paso peatonal junto a las fachadas.
4. Por razones de seguridad, si el emplazamiento de la terraza se sitúa junto al bordillo, deberá existir como mínimo una distancia de 30 cm. entre el bordillo y las terrazas.
5. En ningún caso se ocuparán bajos porticados de edificios residenciales o

eraikinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.

6. Nafarroa Etorbidearen 4. eta 34. zenbakien arteko zatian, terrazaren gehieneko lerrokadura urbanizazioaren erdiko zerrendan kokatutako hiri-altzariek mugatutakoa izango da, eta hiri-altzariak kontuan hartuta gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da.

7. Gutxienez 3 metroko zabalera ez duten espaloietan eta terraza baimentzea posible ez den eremuetan ez da baimenduko fatxadako olanak jartzea.
8. Ez da terrazarik baimenduko, terraza eremura heltzeko errepidea gurutzatzea beharrezkoa den kasuetan.

9. Establezimenduetatik hurbil egon daitezkeen espazio libreetan terrazak jartzeko eskaerak kasu bakoitzaren berezitasunaren arabera ebatziko dira. Eremu horietara iristeko errepidea gurutzatzea beharrezkoa bada, hauek ez dira hurbileko espazio publikotzat hartuko.

10. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan ez da toldo mugikorrik baimenduko.

8. artikulua. Oinezkoentzako kaleetako terrazak.
Oinezkoentzako kaleetan terrazak jartzeko eskaerak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira, honako muga orokor hauen arabera:

1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu establezimenduaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik ondoko fatxadak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako ondoko fatxadako establezimenduen idatzizko adostasuna beharko da.

2. Baimenak ematerakoan, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio-beharrak hartuko dira kontuan.

   Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 3,5

zonas de paso cubiertas que no cuenten con una altura superior a 4,60 m.
6. En el tramo comprendido entre los números de Nafarroa Etorbidea 4 y 34, la alineación máxima de la terraza será la delimitada por el mobiliario urbano situado en la cenefa central de la urbanización, y se deberá garantizar un paso mínimo de 2 metros considerando el propio mobiliario público.
7. No se autorizará la colocación de toldos de fachada en aceras menores a 3 metros de anchura y en aquellas en las que no se autorice la instalación de terrazas.
8. No se permitirá la instalación de terrazas en espacios en los que sea necesario cruzar la calzada desde el establecimiento para llegar a los mismos.
9. Las solicitudes para la instalación de terrazas en los espacios libres que puedan existir próximas a los establecimientos se resolverán según las peculiaridades de cada caso. A este efecto, en ningún caso podrán considerarse espacios públicos próximos en los que sea necesario cruzar la calzada para llegar a los mismos.
10. No se autorizará la instalación de toldos móviles en aceras de calles con circulación rodada.

Artículo 8. Instalaciones en calles peatonales.
Las solicitudes para la instalación de terrazas en calles peatonales se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

1. El emplazamiento de las terrazas no podrá sobrepasar la longitud de la fachada del edificio en el que está situado el establecimiento, salvo que por razones de espacio se solicite la ocupación de fachadas contiguas, en cuyo caso deberán contar con la conformidad acreditada por escrito de los establecimientos situados en ellas.

2. Se tendrán en cuenta a la hora de otorgar las licencias las necesidades del tránsito tanto rodado como peatonal.

   En todos los casos se deberá garantizar un paso mínimo de 3,5 metros considerando el mobiliario público

metroko pasabidea bermatu beharko da baimendutako ibilgailuen edota oinezkoen joan-etorrietarako.

Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoei etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.

Establezimenduen ondoan egon daitezkeen espazio libreetan terrazak jartzeko eskaerak kasu bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira.

Kale Nagusiko eta Jose Miguel Iturriotzeko oinezkoentzako kaleetan, ibilgailuen zirkulaziorako erreia urbanizazioaren beraren zoladuraren zerrendek zehaztutako lerrokadurek mugatuko dute.

Nafarroa Etorbideko 1 eta 25 zenbakien arteko tartean, terrazaren gehieneko lerrokadura euri-urak biltzeko jarraiko ubideak mugatutakoa izango da.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza eraikinaren fatxadatik urrundu beharko da oinezkoen joan-etorria ahalbidetzeko.

4. Merkataritza-establezimenduen zamalanetarako ordutegiaren arabera, baimendutako terrazaren funtzionamendu-ordutegia mugatua izan daiteke.

5. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-eraikinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.

6. Oinezkoentzako kaleetan ez da toldo mugikorrik baimenduko.

9. artikulua. Plaza eta espazio libreetako terrazak.

1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta ondorengo baldintzen arabera ebatziko dira:

existente para el paso de vehículos autorizados y/o peatones indistintamente.

En todos los casos se deberá garantizar un paso mínimo de 2 metros considerando el mobiliario público existente para el tránsito peatonal de acceso a viviendas y locales.

Las solicitudes para la instalación de terrazas en los espacios libres que puedan existir próximas a los establecimientos, se resolverán según las peculiaridades de cada caso.

En las calles peatonales de Kale Nagusia y Jose Miguel Iturrioz, el carril de circulación para tráfico rodado vendrá delimitado por las alineaciones definidas por las cenefas de la pavimentación de la propia urbanización.

En el tramo comprendido entre los números de Nafarroa Etorbidea 1 y 25, la alineación máxima de la terraza será la delimitada por el canal continuo de recogidas de aguas pluviales.

3. En función de la densidad peatonal u otras razones, el emplazamiento de la terraza se alejará permitiendo el paso peatonal junto a las fachadas.

4. Las autorizaciones concedidas podrán ver limitado su horario de funcionamiento teniendo en cuenta el horario de carga y descarga de establecimientos comerciales.

5. En ningún caso se ocuparán bajos porticados de edificios residenciales o zonas de paso cubiertas con no cuenten con una altura superior a 4,60 m.

6. No se autorizará la instalación de toldos móviles en las calles peatonales.

Artículo 9. Instalaciones en plazas y espacios libres.

1. Las solicitudes para la instalación de terrazas en plazas y espacios libres se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

a) Terrazaren gehieneko luzera, establezimenduaren aurrealdea edo plazaren edo espazio librearen erdia izango da gehienez ere.

b) Instalazioaren gehieneko zabalerak ezin izango du plazaren edo espazio librearen heren bat gainditu, lorategiak, arkupeak edo antzeko elementuak kontuan hartu beharko direlarik. Baimendutako gehieneko zabaleraren herena osatzeko, terraza eremua ezingo da zatikatu.

c) Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoen joan-etorrietarako eta etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.

d) Toldo mugikorrak fatxadaren lerrokaduratik gutxienez 2 metro aldenduko dira, horizontalean neurtuta.

e) Bideluze Plaza izeneko espazio librean, urbanizazioko zoladurak zehaztutako lerrokadurak mugatuko du ibilgailuen zirkulaziorako erreia.

2. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-eraikinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.

10. artikulua. Terrazen eta elementu osagarrien ezaugarri teknikoak eta kokapena ezaugarriak:

1. Oro har, elementu guztiek, instalatu aurretik, udalaren oniritzia izan beharko dute. Udalak, baimenarekin batera, baimendutako okupazio-elementuak eta azalerak jasoko dituen dokumentu grafiko bat bidaliko dio interesdunari.

2. Terrazen eta horien elementuen ezaugarri teknikoak:

   <u>a) Terrazako mahaiak eta aulkiak:</u>
   Terraza-mahaiak biribilak edo karratuak izango dira, eta ezingo dute 1 m2-ko

a) La longitud máxima de la terraza no podrá sobrepasar el frente del establecimiento o la mitad de la plaza o espacio libre.

b) La anchura máxima de la instalación no podrá sobrepasar un tercio de la plaza o espacio libre teniendo en cuenta los jardines ornamentales, pórticos o elementos análogos. No se permitirán áreas de terraza discontinuas para para completar el tercio de anchura máxima autorizable.

c) En todos los casos se deberá garantizar un paso mínimo de 2 metros considerando el mobiliario público existente para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales.

d) Los toldos móviles se colocarán alejados de la alineación de la fachada como mínimo a una distancia de 2 metros medidos en superficie horizontal.

e) En el espacio libre denominado como Bideluze Plaza, el carril de circulación para tráfico rodado vendrá delimitado por las alineaciones definidas por la pavimentación de la propia urbanización.

2. En ningún caso se ocuparán bajos porticados de edificios residenciales o zonas de paso cubiertas con no cuenten con una altura superior a 4,60 m.

Artículo 10. Características técnicas y de emplazamiento de las terrazas y sus elementos auxiliares:

1. Con carácter general todos los elementos, previamente a su instalación, deberán contar con el visto bueno del ayuntamiento, que junto a la autorización remitirá al interesado un documento gráfico que recogerá los elementos y superficies de ocupación autorizados.

2. Características técnicas de las terrazas y sus elementos:

   <u>a) Mesas y sillas de terraza:</u>
   Las mesas de terraza serán redondas o cuadradas y no podrán exceder de 1m²

azalera gainditu. Mahai bakoitzeko gehienez 4 aulki jarriko dira.

b) Mahai eta aulki altuak:
Mahai altuak biribilak edo karratuak izango dira, eta ezingo dute 0,25 m2-ko azalera gainditu. Mahai altu bakoitzeko gehienez 2 aulki altu jarriko dira.

c) Eguzkitako itzalkinak:
Mahai bakoitzeko, gehienez ere, eguzkitako itzalkin bat jarriko da. Bere azalera gehienez ere 4 m²-koa izango da, eta 2,20 m-tik 2,60 m-ra bitarteko altuera izango du, terrazaren sestratik neurtuta.

d) Toldo mugikorrak:
Plazetan kokatzen diren terrazen kasuetan toldo mugikorrak baimendu ahal izango dira. Hauek ezingo dute inolaz ere terrazak hartzen duen azalera osoa gainditu, eta 9. artikuluan arautzen diren gehieneko azaleren okupazioaren inguruan ezarritakoa bete beharko dute.

Toldo mugikorrek 2,20 m eta 3,00 m bitarteko altuera izan beharko dute.

e) Alboko toldoak:
- Gutxienez, alboko toldoaren azaleraren erdigunean edota goiko aldean %70ean zeharrargia izango da.
- Egonkorrak eta jarraian jarritakoak izango dira, ez dute ertz bizirik izango eta mugitu eta irauli ez daitezen behar beste elementu izango dituzte.
- Oinezkoen sarbide eta zirkulazio beharren arabera ezarriko dira. Terrazaren azaleraren alde luzeetan ezin izango dira alboko toldoak instalatu, eta terrazaren alde laburretan bakarrik instalatu ahal izango dira.
- Alboko toldoak ezingo dira mahaiek hartzen duten zabalera baina luzeagoak izan, eta gehienez 1,50 metroko altuera izango dute.

de superficie. Por cada mesa se colocarán como máximo 4 sillas.
b) Mesas altas y sillas:
Las mesas altas o elevadas serán redondas o cuadradas, y no podrán exceder de 0,25 m² de superficie. Por cada mesa elevada se colocarán 2 sillas altas como máximo.

c) Sombrillas:
Se colocará como máximo una sombrilla por cada mesa, cuya superficie no podrá ser superior a 4 m² y una altura comprendida de entre 2,20 m y 2,60 m medida desde la rasante de la terraza.

d) Toldos móviles:
En los supuestos de instalación de terrazas en plazas, se permitirá la colocación de toldos móviles que, en ningún caso, podrán exceder de la superficie total que ocupe la instalación de las mesas de terraza, además de cumplir con lo establecido en el artículo 9 referente a las superficies máximas de ocupación.

Los toldos móviles tendrán una altura comprendida de entre 2,20 m y 3,00 m.

e) Toldos laterales:
- Serán translúcidos como mínimo en un 70% de la superficie central o superior.
- Serán estables y continuos, sin cantos vivos, con elementos suficientes que eviten su desplazamiento y resistentes al vuelco.
- Su instalación quedará condicionada a las necesidades de acceso y de tránsito peatonal. No se permitirá la instalación de los toldos laterales en los lados largos de la superficie de la terraza, permitiéndose únicamente su instalación en los lados cortos de la misma.
- Los toldos laterales no podrán tener una longitud superior a la anchura ocupada por las mesas y ni una altura superior a 1,5 metros.

- Edonola ere, Udalak prestatutako terraza planoan zehaztuko da bereizte-elementuak terrazaren zein aldetan instalatu daitezkeen.

F) Berogailuak:

- Fatxadako berogailuak:
  - Establezimenduen fatxada aurrealdeetan berogailuen instalakuntza baimendu ahal izango da, baina ezin izango dute establezimenduko fatxada gainditu.
- Zutikako berogailuak:
  - Gehienez ere 2 mahai bakoitzeko berogailu bat instalatu ahal izango da.
  - Zutikako berogailuen gehieneko altuera 2,30 m-koa izango da.

Oro har, ehunezko elementuz osatutako terrazetako elementu osagarriak, hala nola eguzkitakoak eta toldo mugikorrak, T2 mailakoak izango dira, “plastikozko kautxuz estalitako ehunak izeneko UNE-EN 15619:2014 arauaren arabera. Aldi baterako egituren segurtasuna (dendak). Dendetarako eta antzeko egituretarako estalitako ehunen zehaztapenak”, C-s2, d0, UNE-EN 13501-1: 2007 arauaren arabera.

Terrazak eta hauen elementu osagarriak ezin izango dira zoladurara edota eraikinetako fatxadetara ainguratu, garraiagarriak izango dira eta erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli daitezen ekiditeko beharrezko ezaugarriak izango dituzte. Hiri-altzariekiko nolabaiteko harmonia eta estetika gorde beharko dute, kolore eta akabera neutroak erabiliz (zuriak, kremak, kromatuak).

Okupatutako jabari publikoaren eremua egunero garbituko da, eta terrazak eta hauen elementu osagarriak egunero jasoko dira 19. artikuluan araututakoaren arabera.
Ezaugarri teknikoak edota kokapenekoak bat ez badatoz ordenantza honetan araututako zehaztapenekin edota interes publikoaren aurkakoak badira, udal-teknikariek eginiko eskaeraren araberako beste proposamen bat aurkeztuko dute, eskatzaileari entzunaldia emanez, egoki deritzona alega dezan.

- En cualquier caso, el plano de veladores elaborado por el Ayuntamiento especificará los lados en los que será autorizable la instalación de dichos elementos de separación.

f) Calefactores:

- Calefactores de fachada:
  - Se permitirá la instalación de calefactores en los frentes de fachada de los establecimientos, sin que puedan exceder los límites del mismo.
- Calefactores de pie:
  - Como máximo podrá autorizarse la instalación 1 calefactor por cada 2 mesas.
  - La altura máxima de los calefactores de pie será de 2,30 m.

Con carácter general los elementos auxiliares de las terrazas compuestos por elementos textiles, tales como sombrillas y toldos móviles, serán nivel T2 conforme a la norma UNE-EN 15619:2014 “Tejidos recubiertos de caucho plástico. Seguridad de las estructuras temporales (tiendas). Especificaciones de los tejidos recubiertos destinados a tiendas y estructuras similares” o C-s2,d0, conforme a la UNE-EN 13501-1:2007.

Las terrazas y sus elementos auxiliares no podrán anclarse al pavimento ni a las fachadas de las edificaciones, serán transportables y dispondrán de las características necesarias para garantizar la inmovilización y la estabilidad al vuelco de los mismos. Deberán mantener cierta armonía y estética al mobiliario urbano, utilizando colores y acabados neutros (blancos, cremas, cromados…).

La limpieza del dominio público ocupado se realizará diariamente y las terrazas y sus elementos auxiliares se recogerán todos los días de acuerdo a lo establecido en el artículo 19.
En caso de que las características técnicas y/o de emplazamiento no se ajusten a las determinaciones establecidas en la presente ordenanza o contravengan el interés público, el personal técnico municipal presentará una nueva propuesta respecto a lo solicitado otorgando audiencia a la persona solicitante a fin de que alegue lo que estime oportuno.

III. TITULUA

BIDE PUBLIKOAN SALMENTA-ERAKUSTOKIAK JARTZEA

11. artikulua. Salgai dauden produktuen erakustokien ezaugarri teknikoak.

Bide publikoan erakustokien bidez produktuak erakusteko/saltzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta honako arau hauek betetzen badira, betiere, dagokion sektore legeak xedaturikoari kalterik egin gabe.

Baldintzak:

- Erakustokiak behar bezala margotuta eta korrosiotik babestuak egongo dira, guztiz garbi. Gurpilak izango dituzte alde batetik bestera eramateko, eta beharreko finkatze elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezen. Debekatua dago lurrean nahiz fatxadan inolako euskarririk jartzea. Erakustokien egiturek ez dute ertz zorrotzik izango eta nolabaiteko harmonia eta estetika izan beharko dute hiri-altzariekiko, kolore eta akabera neutroak erabiliz (zuriak, kremak, kromatuak).

- Erakustokiak eraikinaren fatxadari atxikita instalatuko dira, eta luzerak ezingo du gainditu jarduera duen lokaleko fatxadaren luzera, eta etxebizitzetara nahiz lokaletara sartzeko 2,00 metroko sarbidea bermatu beharko da.
- Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan 1,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta erakustokien zabalera izango da kokatzen diren espaloiko zabaleraren herenekoak eta, gehienez, 1,00 metroko zabalerakoak.
- 3,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da oinezkoentzako kaleetan eta plazetan.
- Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.

- Erakusten diren produktuak elikagaiak badira, lurretik 0,75 metroko altueran

TÍTULO III

INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE EXPOSITORES DE VENTA

Artículo 11. Características técnicas de los expositores de venta.

Podrá autorizarse, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación sectorial correspondiente, la exposición/venta de productos en la vía pública mediante expositores siempre que se ajuste a la normativa siguiente.

Normas:

- Los expositores estarán debidamente pintados o protegidos de la corrosión y en perfecto estado de limpieza. Estarán dotados de ruedas para su traslado, serán estables y continuos, sin cantos vivos, con elementos suficientes que eviten su desplazamiento una vez instalados y resistentes al vuelco. Queda prohibida la colocación de anclajes tanto en el suelo como en las fachadas. Las estructuras de los expositores no tendrán cantos vivos y deberán mantener cierta armonía y estética al mobiliario urbano, utilizando colores y acabados neutros (blancos, cremas, cromados).
- Los expositores se instalarán adosados a la fachada del edificio; su longitud no superará la longitud de la fachada del local donde se desarrolle la actividad, y se garantizará un acceso al edificio, así como al local, de 2 metros.
- En las aceras de las calles por donde circulen vehículos se garantizará un paso de 2 metros de anchura libre en la acera; los expositores a instalar tendrán una anchura de un tercio de la acera en la que se ubiquen, y como máximo 1,00 metro de anchura.
- Se garantizará un paso de 3,50 metros de ancho libres en las calles peatonales y plazas.

- Para garantizar adecuadamente la circulación de peatones y el uso del mobiliario urbano, no podrá haber ni mobiliario urbano ni otros elementos en la anchura libre de obligado cumplimiento.
- Cuando los productos expuestos sean comestibles, estos se deberán colocar a no menos de 0,75 metros del suelo; para el resto de productos, la altura mínima será de 0,10 metros.

jarriko dira gutxienez, eta gainerako produktuak, berriz, lurretik 0,10 metrora.
- Erakustokiek nahi adina apal izango dituzte, lurretik gora 1,40 metroko altuera arte. Erakustokiek eta salgaiek osaturiko multzoa ez da 1,60 metrotik gorakoa izango.
- Debekatuta dago bide publikoan salmentako produktuak pisatu, neurtu edo kobratzeko elementuak jartzea.
- Erakustokiak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, okupatzen zuten bide publikoa garbi utziz.

12. artikulua. Merkataritza-jardueren elementu osagarrien erakustokien ezaugarriak.
Baldintzak:
- Dekorazio elementu edo/eta kartelak beharreko finkatze elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezen. Debekatua dago lurrean nahiz fatxadan inolako euskarririk jartzea. Dekorazio elementu edo/eta kartelen egiturek ez dute ertz zorrotzik izango.
- Dekorazio elementu edo kartelak eraikinaren fatxadari atxikita instalatuko dira, eta kokatu ahal izango dira lokaleko fatxadaren luzeraren barnean, eta etxebizitza nahiz lokaletara sartzeko 2 metroko sarbidea bermatu beharko da.
- Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta elementuen zabalera izango da kokatzen diren espaloiko zabaleraren herenekoak eta, gehienez, 0,60 metroko zabalerakoak eta 1,20 metroko altuerakoak.
- Oinezkoentzako kaleetan eta plazetan 3,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da. Dekorazio elementuak edo kartelak, gehienez, 0,60 metroko zabalerakoak eta 1,20 metroko altuerakoak izango dira.
- Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.

- Los expositores podrán estar provistos de cuantos estantes se deseen, hasta una altura máxima de 1,40 metros. El conjunto formado por los expositores y la mercancía no superará 1,60 metros de altura.
- Queda prohibida la instalación de elementos de pesaje, medida o cobro en la vía pública.
- Los expositores podrán permanecer en el exterior del establecimiento durante el horario comercial. A su finalización deberán ser retirados, dejando la vía pública ocupada limpia.

Artículo 12. Características de los elementos auxiliares de las actividades comerciales.
Normas:
- Los elementos de decoración y/o carteles dispondrán de elementos de fijación suficientes para garantizar la inmovilización y la estabilidad al vuelco de los mismos. Queda prohibida la colocación de anclajes tanto en el suelo como en las fachadas. Las estructuras de carteles y/o elementos de decoración no tendrán cantos vivos.
- Los elementos de decoración o carteles se instalarán adosados a la fachada; podrán ser colocados a lo largo de la fachada del local, y se deberá garantizar el acceso de 2 metros tanto al edificio como al local.
- En las aceras de las calles donde circulen vehículos se garantizará el acceso de 2 metros de ancho libre; los elementos a instalar tendrán una anchura de un tercio de la acera en la que se ubiquen y, como máximo, 0,60 metros de anchura y 1,20 metros de altura.
- Se garantizará el paso de 3,50 metros de ancho libres en las calles peatonales y plazas. La anchura de los elementos de decoración y carteles será como máximo, de 0,60 metros de anchura y 1,20 metros de altura.
- Para garantizar adecuadamente la circulación de peatones y el uso del mobiliario urbano, no podrá haber ni mobiliario urbano ni otros elementos en la anchura libre de obligado cumplimiento.

- Etxebizitza arkupeetan gutxienez 2 metroko pasabide librea bermatuko da.
- Dekorazio elementu edo/eta kartelak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, eta okupatzen zuten bide publikoa garbi utzi.

IV. TITULUA

LIZENTZIAK IZAPIDETZEA ETA KUDEATZEA

13. artikulua. Baimen-eskakizuna
Baimena eskatu nahi duenak artikulu honetan adierazitako dokumentuez gain, alkatetzari zuzendutako eske-idazkia aurkeztu beharko du Erregistro Nagusian honako hauek azalduta:

a) Eskatzailearen izen-abizenak.
b) NAN, telefono eta helbidearen datuak.
c) Jardueraren izena, IFZ eta kokapena.
d) Xehetasun nahikoa duen krokis-a, terrazak hartuko lukeen eremua zehaztuz, mahai eta aulkien kokapena, mahai kopurua eta okupazioaren iraunaldia, besteak beste.
e) Jarri nahi diren erakustokien eta dekorazio-elementuen deskripzioa jasotzen duen txostena, krokisa eta argazkiak barne.

14. artikulua. Ebazpena.

1. Behin eskakizuna honako Ordenantza honetan zehaztutakoen arabera eginda, eta aurretiazko txosten teknikoa aztertu eta gero, alkatetzak legeak ezarritako epeen barruan emango du ebazpena.
2. Baimen-agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak agertuko dira, hala nola, okupazio-azalera, mahai eta aulki kopurua, okupazioaren indarraldia eta beharrezko irizten diren berezitasun guztiak.
3. Baimenarekin batera terrazaren eta elementu osagarrien kokapenaren eta ezaugarrien plano deskriptiboa igorriko da. Azken agiri hori argi ikusteko moduan eta ikuskatzaileen eskura jarriko da.

- Para los pórticos residenciales se garantizará como mínimo un paso libre de 2m.
- Los elementos de decoración y/o carteles podrán permanecer en el exterior del establecimiento durante el horario comercial. A su finalización deberán ser retirados, dejando la vía pública ocupada limpia.

TÍTULO IV

TRAMITACIÓN Y GESTIÓN DE LICENCIAS

Artículo 13. Solicitud de licencia.
La persona interesada deberá presentar en el Registro General, acompañada de los documentos señalados en este artículo, la correspondiente solicitud a alcaldía, en la que hará constar:

a) Nombre y apellidos de la persona solicitante.
b) Datos personales relativos a domicilio, teléfono y D.N.I.
c) Nombre, C.I.F. y emplazamiento de la actividad.
d) Croquis de detalle suficiente de la superficie ocupada por la instalación a escala, así como la distribución de mesas y sillas, número de mesas, periodo de ocupación, etc.
e) Informe, incluyendo croquis y fotografías, que recoja la descripción del expositor y elementos de decoración que se pretende instalar.

Artículo 14. Resolución.

1. Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico, se resolverá por la alcaldía en los plazos legalmente establecidos.
2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, periodo de vigencia de la misma y demás particularidades que se estimen necesarias.
3. Junto con la licencia se hará entrega de un plano descriptivo de las condiciones y detalles del emplazamiento de la terraza y sus elementos auxiliares, dicho documento deberá figurar en lugar visible a disposición del personal inspector.

4. Jabari-publikoa okupatzeagatiko tasak edo Ordenantza urratzeagatiko isunak ez ordaintzeak baimena ukatzeko arrazoi izan daitezke.

5. Udalak, aurrez dagokion txosten teknikoa jasota, ezezkoa eman ahal izango dio erakustokiak eta elementu osagarriak instalatzeari, interes publikoaren mesedetan, oinezkoen dentsitate handia dela eta edota garbiketa-, segurtasun- eta apainketa-egoerak direla eta.

15. artikulua. Baimenaren baldintzak.

1. Baimenak emandakotzat joko dira, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenentzako kalterik gabe, eta ezingo dira argudiatu baimendunari jardunaren ondorioz etor dakiokeen erantzukizun zibil edo penala desagerrarazi edo arintzeko.
2. Okupatzeko baimenak ondoriorik gabe geratuko dira, interesdunei espresuki ezer jakinarazi beharrik gabe, hartuko duten lekuari eta ordutegiari dagokionez, espazio publiko hori erabili behar bada Udalak bide publikoan antolatutako ekimen eta jardueretarako (larunbatetako azokak, festak, ekitaldiak, etab.).

16. artikulua. Tasa.

1. Lizentziaren titularrak indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren araberako tasa ordaindu beharko du.

17. artikulua. Iraupena.

1. Instalazio-lizentziak urtebetekoak izango dira.
2. Emandako baimena automatikoki berrituko da datozen ekitaldietarako baldintza berberekin eta epe berdinerako, baldin eta aurretik ez bazaio Beasaingo Udalari baja emateko idatziz eskatu.

18. artikulua. Ordutegia.

1. Jarduera nagusiaren ordutegi-baimendua dena delakoa izanda ere,

4. El impago por la persona solicitante de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas con arreglo a la presente Ordenanza podrá motivar la denegación y/o revocación de la licencia.
5. El Ayuntamiento, previa la emisión del pertinente informe técnico, podrá denegar la autorización para la instalación de expositores y elementos accesorios fundado en razones de interés público en atención a la elevada densidad de peatones o en atención de situaciones de limpieza, seguridad y ornato.

Artículo 15. Condiciones de la licencia.

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona beneficiaria en el ejercicio de sus actividades.
2. Las autorizaciones para la ocupación se dejarán sin efecto, sin necesidad de notificación expresa a los interesados, en cuanto a su ocupación y horario, cuando dicho espacio público haya de ser utilizado en función de iniciativas y actuaciones organizadas o autorizadas por el Ayuntamiento en la vía pública (ferias semanales, ferias especiales, fiestas, actuaciones, autorización de otras instalaciones, etc).

Artículo 16. Tasa.

1. La persona titular de la licencia deberá abonar la tasa correspondiente conforme a la Ordenanza Fiscal vigente.

Artículo 17. Duración.

1. Las licencias de instalación únicamente podrán ser de carácter anual.
2. La licencia otorgada se prorrogará automáticamente en las mismas condiciones en los siguientes ejercicios y por los mismos periodos, salvo petición expresa por escrito de baja o modificación al Ayuntamiento de Beasain antes del inicio del periodo correspondiente.

Artículo 18. Horario.

1. Con independencia del horario que tenga autorizada la actividad principal, la

terrazak erabiltzeko ordutegia honako hau izango da:

Terrazak bide publikoan jartzeko ordutegia: goizeko 8etatik aurrera.

Ixteko ordutegi orokorra: 23:00etan.
Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 01:00ean.

Ekainaren 1etik irailaren 30era: 24:00etan.
Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 02:00etan.

2. Merkataritza-establezimenduetako erakustokiak eta elementu osagarriak jartzeko ordutegia merkataritza-establezimenduak zabaltzeko ordutegi bera izango da. Nolanahi ere, ezin izango dira 08:00ak baino lehen jarri, eta 20:00ak baino lehen kendu beharko dira.

19. artikulua. Instalazioa kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitutakoan, instalazioaren titularrak baimendutako material guztia bildu beharko du. 20 minutu ditu elementu guztiak bide publikotik kentzeko.
2. Lokalaren barruan jaso ezin diren elementuak establezimenduaren fatxadaren kontra jaso beharko dira, modu ordenatuan, kontzentratuan eta kateatuta.
3. Nolanahi ere, zutik dauden berogailuak establezimenduaren barruan jaso beharko dira. Baimendutako materiala jaso ondoren, baimendunak arduratu beharko du erabili duen eremua garbi eta txukun uzteaz.

20. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

- Betekizun nagusiak eta Ordenantza aplikatzearen ondoriozkoak kaltetu gabe, instalazioaren titularrak erabilera baimenduko lurzoruaren, instalazioaren beraren eta elementu osagarrien garbitasun, segurtasun eta apaintasuna zaintzeko betebeharra du, beharrezko baliabide guztiak erabiliz. Ondorioz,

utilización de las terrazas queda limitada al siguiente horario:

Horario de colocación de terrazas en la vía pública: a partir de las 8 de la mañana.

Horario general de cierre: 23:00 horas.
Los viernes, sábados y víspera de festivos: 01:00 horas.
Del 1 de junio al 30 de septiembre: 24:00 horas.
Los viernes, sábados y víspera de festivos: 02:00 horas.

2. El horario de instalación de expositores y elementos accesorios de los establecimientos comerciales coincidirá con el horario de apertura de los establecimientos comerciales. En todo caso, no podrán ser instalados antes de las 08:00 horas y tendrán que ser retirados antes de las 20:00 horas.

Artículo 19. Retirada de la instalación.

1. Finalizado el horario establecido en el artículo anterior, la persona titular de la instalación procederá a la recogida de la terraza y de todos los elementos auxiliares autorizados que bajo ningún concepto deberá permanecer en la vía pública una vez transcurridos 20 minutos.
2. Los elementos que no puedan ser recogidos dentro del local, deberán recogerse contra la fachada del establecimiento, de forma ordenada, concentrada y encadenada.
   En todo caso, los calefactores de pie deberán ser recogidos en el interior del establecimiento.
3. Una vez retirado el material autorizado corresponderá a la persona titular de la licencia dejar la zona ocupada en perfecto estado de limpieza.

Artículo 20. Obligaciones de la persona titular de la instalación.

- Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se deriven de la aplicación de la presente Ordenanza, la persona titular de la instalación queda obligada a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y

egunero garbituko da okupatutako jabari publikoa.

- Instalazioaren titularra, terrazaren eta bere elementu osagarrien funtzionamenduaren eta erabileraren ondoriozko arau-hausteen erantzulea izango da.
- Instalazioaren titularrak urtero ordaindu beharko dizkio Udalari dagozkion tasak eta gainerako ordainarazpenak, Ordenantza Fiskaletan ezarritako zenbatekoan eta moduan.

- Baimendutako eremura hertsiki mugatzea, inolako arrazoirengatik eremua ezingo delarik gainditu, eta bezeroek halakorik egin ez dezaten beharrezko neurriak hartuz.
- Instalazioaren titularrak, Udalak baimenarekin batera emandako baimendutako terrazaren planoa jarri beharko du establezimenduaren fatxadan.

- Debekatuta dago kanpoaldean barrak, bozgorailuak, telebistak, musika-gailuak edo antzeko gailuak jartzea. Era berean, ezin izango da telebistarik jarri beirazko itxituraren ondoan, bide publikora begira.
- Debekatuta dago lokaletik kanpo baimendutakoa baino altzari gehiago pilatuta edukitzea. Baimenean baimendutako materiala soilik egongo da bide publikoan.
- Instalazioaren titularrak auzokoen atseden eskubidea errespetarazi beharko du, hortaz, zalaparta, iskanbila eta/edo zaratak ez ditu baimenduko, batez ere, 23:00etatik aurrera.

21. artikulua. Arau-hausteak.

Ondokoak arau-hauste arintzat jotzen dira:

a) Agindutako ordutegiaz kanpo terrazak jartzea.

b) Baimendutako kopurua baino elementu (mahai, aulki eta elementu osagarri) gehiago jartzea.

ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios. A tal efecto la limpieza del dominio público ocupado se realizará diariamente.

- Quien sea titular de la instalación es responsable de las infracciones que se deriven del funcionamiento y utilización de las terrazas y sus elementos auxiliares.
- Quien sea titular de la instalación abonará anualmente al Ayuntamiento las tasas y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecidas por las Ordenanzas Fiscales.
- Ceñirse estrictamente a la zona autorizada sin rebasarla por ningún concepto, evitando que sus clientes lo hagan.

- La persona titular de la instalación estará obligada a mostrar en la fachada del establecimiento el plano de terraza autorizado facilitado por el Ayuntamiento junto a la autorización.
- Se prohíbe la instalación de barras exteriores, altavoces, televisores, máquinas musicales o cualquier otro aparato similar. Asimismo, no se podrán colocar televisores junto al cierre de vidrio orientados hacia la vía pública.
- Se prohíbe tener apilado fuera del local más mobiliario que el autorizado. Solamente se podrá tener en la vía pública el material expresamente autorizado en la licencia.
- La persona titular de la instalación velará por que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario, por lo que no permitirá escándalos, riñas y/o ruidos en general en la instalación, con especial atención a partir de las 23 horas.

Artículo 21. Infracciones.

Son infracciones leves:

a) Colocación de terrazas fuera del horario establecido.
b) Colocación de elementos (mesas, sillas y otros elementos auxiliares) excediendo el número de elementos autorizados.
c) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

c) Baimendutako kokapenaz kanpo jartzea mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak.
d) Okupazio-espazioa behar bezalako apaintasun, segurtasun eta garbitasun baldintzatan ez edukitzea.
e) Bide publikoan baimenean baimendutako baino altzari gehiago pilatuta izatea.
f) Ordenantza honetan zehaztutako arau-hauste arinaren errudun izatea.

Ondokoak arau-hauste larritzat jotzen dira:
a) Lizentziarik gabe jartzea terrazak eta elementu osagarriak.
b) Instalazioaren titularrak hiru arau-hauste arin pilatuz gero behin betiko zigor ebazpena jasoko du.

c) Kanpoaldean bozgorailuak, telebistak, musika-gailuak edo antzeko gailuak jartzea.

22. artikulua. Zigorrak.
Ordenantza urratzea ondorengo eskalan adierazitako isunekin zigortuko da:

a) Arau-hauste arinak: 100 €-tik 750 €-ra bitarteko isuna edo/eta lizentzia ezeztatzea eta, ondorioz instalazioa berehala kentzea, Udalaren errekerimendua betetzen ez bada.

b) Gertakarien larritasuna aintzat hartuta, 751 € eta 1.500 € arteko isuna eta/edo ordenantza honetan arautukako etorkizuneko terrazarako baimen-emateetan parte hartzeko inhabilitazioa.

23. artikulua. Udal baimenik gabeko instalazioak.
Alkatetzak, aurretiaz interesduna entzuteko epea ireki eta gero, berehala kendu ahalko ditu baimenik ez duten terrazak, arauek agindutako zigorrak ezartzea kaltetu gabe.

24. artikulua. Betearazte subsidiarioa.
Instalazioaren arduradunak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal-aginduari muzin egingo balio, Ordenantzak zehaztutako kasuren bat emanez gero, Udalak terraza kentzeari ekingo dio eta udal biltegietan gordeko ditu jasotakoak. Jabeak elementu horiek guztiak berreskuratu ahal izango ditu dagokion zenbatekoa ordaindu eta gero.

d) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.
e) Tener apilado en la vía pública más mobiliario que el expresamente autorizado en la licencia.
f) El incumplimiento leve de la normativa establecida en la presente ordenanza.

Son infracciones graves:
a) La instalación de terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.
b) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, por la misma persona titular de la instalación.
c) La instalación de altavoces, televisores, máquinas musicales o cualquier otro aparato similar.

Artículo 22. Sanciones.
Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multas de conformidad con la siguiente escala:
a) Infracciones leves con multa desde 100 € hasta 750 € y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.
b) Infracciones graves con multa desde 751 € hasta 1.500 € y/o inhabilitación de la licencia de terraza para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante el plazo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.

Artículo 23. Instalaciones sin licencia municipal.
La alcaldía, previa concesión de un periodo de audiencia a la persona interesada, podrá retirar de forma inmediata las terrazas instaladas sin licencia, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.

Artículo 24. Ejecución subsidiaria.
Cuando la persona responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de los elementos instalados en la vía pública, en los supuestos recogidos en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento procederá al levantamiento de los mismos, quedando depositados en los almacenes municipales, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de las tasas oportunas.

II XEDAPEN GEHIGARRIA

Merkataritza saltokien noizbehinkako hedapenak:

Udalerriko eremu, auzo eta barrutietako merkatari-elkarteek salgai-hondarren, denboraldiko hondarren eta antzekoen azoka txikiak sustatu ahal izango dituzte establezimenduen aurrealdearen dagoen espazio publikoan, edo, salbuespenez, beste espazio publiko batzuetan, urte natural bakoitzean lau egunez, egun horietatik bi ondoz ondoko egunak izan ahalko direla. Elkarte sustatzaileak ekimenari atxiki zaizkion eta parte hartzeko asmoa daukaten saltokiak identifikatuko ditu, eta, azoka txikia egiteaz batera, bide publikoan bestelako jarduerak egiteko eskatuz gero, jarduera horiek zehatz-mehatz azaldu beharko dituzte, eta espazio publikoaren zein zati erabili nahi dituzten ere adierazi beharko dute.

Azoka txikia sustatu duen merkatari-elkartearen lurralde eremuan kokatuta dauden eta elkarte horretako kide ez diren merkatariek bat egin ahal izango dute ekimenarekin, betiere ekimenari atxikita dauden parte-hartzaileen zerrendan ageri badira; merkatari-elkarteak aldez aurretik emango dio zerrenda hori Udalari. Aipatutako ekimenari atxiki ahal izateko eta partehartzaileen zerrendan inskribatu ahal izateko baldintzak (adibidez, prezioa, behar bezala justifikatuta) Alkatetzak onartu beharko ditu aurrez; horretarako, dagokion ekitaldia izan baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko zaizkio baldintza horiek. Zerrenda horretan inskribatuta ez dauden merkatariek, elkarteko kide izan edo ez izan, ezin izango dute euren merkataritza establezimendutik kanpora luzapenik atera, Alkatetzak baldintzak onartu ez dituenean salbu.

DISPOSICIÓN ADICIONAL I

Extensiones de establecimientos comerciales con carácter ocasional:

Las Asociaciones de comerciantes de las diferentes zonas, barrios y distritos del municipio podrán promover la realización de mercadillos de saldos, restos de temporada y similares en el espacio público colindante con el frente de cada uno de los establecimientos o, con carácter excepcional, en otros espacios públicos, durante cuatro días durante cada año natural, pudiendo ser dos de ellos continuos. La Asociación promotora identificará a los comercios adheridos y participantes en la iniciativa, y en caso de solicitarse la realización de otras actividades en la vía pública, paralelas a la celebración del mercadillo, se describirán éstas con entero detalle, así como las concretas porciones del espacio público que pretendan utilizarse.
Los y las comerciantes radicados en el ámbito territorial de la Asociación de comerciantes promotora del mercadillo y que no sean miembros de la misma podrán sumarse a la iniciativa, siempre y cuando se encuentren inscritos en el listado de participantes adheridos a la iniciativa, entregado previamente por la Asociación de comerciantes al Ayuntamiento. Los requisitos (entre otros, el precio, debidamente justificado) a exigir para adherirse a dicha iniciativa e inscribirse en el listado de participantes, tendrán que ser aprobados previamente por Alcaldía, para lo cual deberán presentarse con 15 días de antelación a la celebración del evento que se trate. En caso de no encontrarse inscritos en dicho listado, los y las comerciantes, miembros o no miembros de la Asociación, no podrán sacar una extensión fuera de su establecimiento comercial, salvo que Alcaldía no haya aprobado los requisitos exigidos para ello.

II XEDAPEN GEHIGARRIA

Pandemia edo osasun-krisi egoeretan, Udalak salbuespenezko neurriak hartu ahal izango ditu ordenantza hau aldi baterako aldatzeko.

DISPOSICIÓN ADICIONAL II

En situaciones de pandemia o crisis sanitaria, el Ayuntamiento podrá adoptar medidas excepcionales que modifiquen la presente Ordenanza

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, indarrik gabe utziko du 2018ko maiatzaren 14an

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

La entrada en vigor de la presente Ordenanza dejará sin efecto la “Ordenanza reguladora de la

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 91. ZK argitaratutako Beasaingo Udaleko “Aulkiak eta mahaiak herri-bidean jartzea arautzeko Ordenantza”.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean sartuko da indarrean.

**5.- BERRI EMATEA**: ondorengo Ebazpen-zerrenden berri eman da:

- 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 26rarte emandako Ebazpenak.
- 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 26rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

**6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabostean amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

instalación en vía pública de Veladores” del Ayuntamiento de Beasain, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 14 de mayo de 2018 Nº91.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor y surtirá efectos tras su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5.- DACIÓN DE CUENTA**: Se da cuenta de la relación de Resoluciones:

- Resoluciones dictadas desde el 23 de mayo al 26 de junio de 2022.
- Resoluciones en relación a contratos menores dictadas desde el 23 de mayo al 26 de junio de 2022.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

En el apartado de ruegos y preguntas no se ha formulado ninguna.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecinueve horas y veinticinco minutos, de lo cual como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.